

ALONSOTEGI HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Toki Garapenerako Plana 2002
BURUTU programa

Aurkibidea

1. Hitzaurrea

2. Aurrekariak. Bilbao Metropolitarra Birbizitzeko Plan Estrategikoaren Laburpena, Hausnarketa Estrategikoa eta Bilbao 2010 agiria. Estrategia

3. Lan metodologia

4. Alonsotegiko Udalaren testuinguru sozio-ekonomikoaren laburpena.

- 0) Kokapena eta historia
- 1) Biztanleria eta giza baliabideak
- 2) Ekonomia jarduera
- 3) Hirigintza
- 4) Bizitza kalitatea

5. Gako estrategikoak

6. Ondorioen laburpena

7. Parte-hartzaileen eranskina



Hitzaurrea

90eko hamarkadan, Bilbok eta bere metropoli-barrutiak jasan dute biztanleen bizitza eraldatu duen suspertze prozesu indartsua, Bilbao Metropolitarrak Birbizitzeko Estrategia Planaren helburu gehienak behin lortuta, egokitzen joan diren hausnarketa estrategiko berria gitea.

Metropoliaren aurrerapen nabarmenek guztiongan eragindako baikortasunaren ondorioz etorkizunean beste helburu batzuk proposatuko dira bikaintasunaren bilaketan, nazioartean erreferentzia izango den metropolia eraikiz, "World Class" metropolia, Harvard Business School-eko Rosabeth Moss Kanter irakasleak sortutako kontzeptua erabiliz.

Bilbao Metropolitarrak Birbizitzeko Elkartek -Bilbao Metropoli 30- hausnarketa estrategiko sakona burutu zuen 1999an. Honen ondorioz Bilbo Metropolitarraren ikuskera berri egin da, bere lehiaketa-abantailak bultzatu eta berezitasunak aztertzea behar dituen nazio-arteko erreferentzia metropolia bihurtuz, beti ere etorkizuneko ikuspegia indartzen duten oinarritzko gakoak eta arloak bilatuz.

Hala ere, aipatu behar dira metropolian dauden udal errealitate desberdinak. Industriak 100 urtetan eragin izugarria izan du metropoliaren gune desberdinen garapenean, berau udalerriak prozesuan sartuta zeuden ala ez arabera zen. Fenomeno honen

froga nabarmenena demografia-antolaketa da: itsasadarra eta Bilbo inguruan dauden udalerrietan agerikoa da biztanleen pilaketa edo kontzentrazioa.

Garapen ekonomiko prozesuetan desorekak izaten dira, bai Bizkaian baita edozein ekonomia-ingurutan ere. Hainbat egoera desberdin pilatzen dira toki berean, izan ere zenbait hiri-ingurutan ekonomia ez ezik, ingurumena eta giza harremanak ere gainbehera doaz. Horregatik guztiagatik ezinbestekoa da inguru horiek suspertzea eta horretarako osotasunezko ekintzak egin behar dira.

Beraz, Bilboko metropoliaren garapen harmoniko eta orekatua egin behar da, herediatutako desorekak murriztuz zein eskala-ekonomia eta sinergiak bultzatuz. Esan beharra dago, garapena bultzatzeko estrategia hiri garrantzitsuenetan ez ezik, gune metropolitarrak osatzen duten udalerrietan ere aplikatzen dela. Udalerri horiek ahalegindu behar dute beraien estrategia propioa garatzen, hori oso onuragarria baita, ez bakarrik gune metropolitarraren lehiakortasunean duen eraginagatik, baita udalerriaren zein biztanleen bizimodua ere gai egiten dituelako¹.

Era berean, hirian baztertutako lagunak gizarteratuz gero, hiri-garapena are erakargarriagoa izango da eta bizitza kalitatea hobea. Hiri garatzeko dimentsio sozial

¹ Orientazio honen bitartez Bartzelonako gune metropolitarrako udalerri gehienek estrategia-planak garatu dituzte Bartzelonako dinamismoa aprobetxatzeko eta hiri-funtzioak berriz antolatzeko. Ondorioz, jarduerak ekonomikoak sortu dute, auzoak erdigunearekin egituratu dituzte eta modu horretan bere egoera eraldatu dute metropoli gunearen barnean.

honek zenbait arlo dakar berarekin: segurtasuna, ingurumena, garraioa, etxebizitza, lanpostura heltzea eta trebatzeko aukerak.

Honenbestez, Alonsotegiko Udalak, udal errealitateari egokitutako Plan Estrategikoa sortu ahal duen Hausnarketa Estrategikoa egitea erabaki du. Plan honek metropoliak bere osotasunean dituen helburu nagusiak aintzat hartuko ditu.

Ekimen hau, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Sailak bultzatutako 2002 Tokiko Garapen Planaren barruan dago. Plan honi esker eta udalerriaren hazkunderako gaitasuna identifikatuz, ahalik eta garapen handiena ahalbidetuko duten estrategia-jokabideak ezarriko dira.

1992ko martxoaren 26an Alonsotegiko Udalaren Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki zuen Bilbao Metropoli-30 Elkargoan numero-bazkide izatea, berori Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 1992ko apirilaren 13an onartu zuelarik. Horregatik, eta kontuan izanik Bilbao Metropoli-30 Elkargoak planifikazio estrategikoan lortutako eskarmentua eta ezagutza, Alonsotegiko Udalak bere laguntza osoa izan du egitasmo honetan.

Bilbao Metropoli-30 Elkargoa eratu zenetik, Bilbo Metropolitarra indartzeko sustapen eta ikerketa ekintzak burutu izan ditu, eta gaur egun hirien sustatze estrategikoan hamar urteko eskarmentua dauka,

urteotan munduko dozenaka metropoli ikertu eta aztertu dituela.

Hausnarketa Estrategiko prozesu honen helburuak hauexek dira:

1. Udalari protagonismo gehiago emateko estrategia identifikatzea, beti ere bere garapen ekonomikoa eta soziala bideratzeko.
2. Udalerriko eragile garrantzitsuenen arteko elkarlan publiko eta pribatua bultzatzea eta norberak ahal duen neurrian estrategia garatzeko konpromisoa lortu.
3. Udalaren erronkak eta aukerak, udal kultura eta hiritarren partehartzea hedatzeko gai izango den guztion partehartze prozesua eratzea.
4. Udalaren estrategia orokorra edo integrala izango da (lurraldekoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, kulturala eta soziala) eta ez bakarrik fisikoa, hiri-plana duten hirietan jazotzen de bezala.





Aurrekariak

Bilbao Metropolitarrak Birbizitzeko Elkartek Bilbo Metropolitarrarentzat egindako ikerlanen berri izango dugu kapitulu honetan. Ikerlan hauek Alonsotegiko Udalaren Hausnarketa Estrategikoaren aurrekaritzat har ditzakegu. Ikerlan aipagarrienak hauexek dira: euskal gizarteari 1990ean aurkeztutako Bilbao Metropolitarrak Birbizitzeko Plan Estrategikoa, 1999ko Hausnarketa Estrategiko agiria eta Bilbao 2010, Estrategia dokumentua.

Bilbao Metropolitarrak Birbizitzeko Elkartea sustapen eta ikerketarako elkartea da, ondare erantzukizun osoa zein juridikoa du, 1991ko maiatzaren 9an sortu zen ofizialtasunez eta 1991ko abenduaren 18an inskribatu zuten Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan. Elkartek lehenesten ditu Bilbo Metropolitarrak suspertuko duten azterketa eta sustapen ekintzak.

Biztanle eta konpromiso publiko eta pribatuei gizarte zibilaren partaidetza tinko esker, Elkartek Birbizitze Plana burutu zuen. Plan horrek Bilbo Handia biziberritzeko zortzi arlo kritiko aipatu zituen:

- Giza baliabideetan inbertsioa
- Industria-eskualde moderno bateko zerbitzu aurreratuak dituen metropolia
- Higikortasuna eta sartzeko erraztasuna
- Ingurumen birsorkuntza
- Hiria bere onera ekarri
- Kultura zentralizatu

- Herri-administrazioen kudeaketa koordinatua
- Gizartearen artikulazioa

1999an metropoliaren azterketa egin zuten eta lehenengo planaren helburuak bete zirela egiaztatu zuten. Hasierako etapa honetan egitasmo estrategikoak eraldatzen ari ziren hiriaren gizarte-ekonomia funtzioak eta paisaia. Honen ostean eta globalizazio garaian sortutako hirien arteko konpetentzia berriaren eraginez, erronka berriei aurre egiteko beharra agertu zen.

Eskualdeek eta horien barnean metropoliek, gero eta garrantzi handiagoa dute bai merkataritzan bai hezkuntzan. Hauek eraberritze gune ere bihurtu dira. Legitimitate soziala eta kulturala dute eta herritarrak malguak eta hurkoak sentitzen ditu. Hori dela eta, beren lehiaketa-abantailak artikulatzeko, ezartzeko eta gauzatzeko elementu ezinbestekoak bilakatzen ari dira, biztanleek eta bisitariek eskatzen duten gero eta bizitza kalitate hobeari erantzunez.

Egoera eta inflexio-puntu honen aurrean eta etorkizunean aitzina egiteko, Bilbao Metropoliti-30ek plan berri bati ekitea erabaki zuen, helburu berriak eta beroriek lortzeko bideak zehaztuz. Jomuga horrekin, Bilbao Metropoliti 30 Elkargoak hausnarketa estrategikoa prozesua jarri zuen abian, bertan bazkideen ehunka ordezkari eta nazioarteko zenbait adituk hartu zuen parte, Bilbo Handiari Ezagutzaren Gizartean

lehiaketa-abantailak ematen dizkioten bereizte-faktoreak identifikatzeko.

Aldi berean, bazkideek eta adituek ateratako ondorioak alderatu zituzten, suspertze prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoak diren hiru kolektiboren pertzepzio kualitatiboarekin: bertan bizi diren atzerriko ikasleak, gazte profesionalak eta haurrak edo etorkizuneko Bilbo Handiko biztanleak.

Denen esfortzu honek "Bilbao 2010. Hausnarketa Estrategikoa" du izena. Agiri hau aurkeztu zitzairen asanbladan bildutako bazkidee - Ibarretxe Lehendakaria buru zela- 1999ko azaroaren 25ean.

Identifikatutako etorkizun-senak (hauxe izan baitzen emaitza) hainbat onura ekarriko dizkio hiriari: aberastasuna sortuko da, guztion bizitza kalitatea hobea izango da eta hiriak munduaren esker ona irabaziko du. Bilbok, komunitatearen onurako diren ideia onak identifikatu, erakarri eta gauzatzeko gai izan behar du. Ideia honek lotura dauka ideia aurrerratuak erakartzeko eta sustatzeko izaerarekin. Izaera hau hiriaren une garrantzitsuetan agerian geratu da egitasmo berritzaileak aurrera eramanez eta hiria etorkizunerantz bultzatuz.

Arrakasta, ondorioek diotenez, dagoen baikortasuna aprobeztatzean datza. Gure azpiegitura estrategikoek gora egin

dute izugarri eta horrexek sortu du optimismoa. Horretaz guztiaz baliatuz nazioartean erreferentzia izan behar dugu ideiarik onenak erakartzeko eta etorkizuneko egitasmo bihurtzeko.

Helburu hori lortzeko ezinbestekoak dira etorkizunari begirako bost gako estrategiko; berorien artean pertsonak eta beren balioak, eta pertsonak duten gaitasuna bai ideiak sortzeko, bai proiektuak gauzatzeko eta bai teknologia berriak bereganatzeko. Halaber, profesionalek ezagupenak eta etorkizun-sena izan behar dituzte geroko premiei aurrea hartu ahal izateko. Horretarako, modu eraberritzailean jokatu eta euren ezagutzekin lagunduko dute. Hazkundera aztertzen duten teoria berriek argi erakusten dute ezagutza eta eraberritzea oinarritzko faktoreak direla lehiakortasunean. Azkenik, esan behar dugu guztiok elkarrekin lan eginez eta kooperazio sareak eraikiz lortuko ditugun helburuak handiagoak izango direla norberak bakarrik erdietsiko dituenak baino. Horrekin guztiarekin lortu nahi dugu biztanleek bizitza kalitate egokia izatea eta munduan lehiakorra izango den metropolia. Horrez gain, atzerritarrak gustura sentitu behar dira, etengabeko sustapen eta eraberritze prozesu honetan parte har dezaten.

Bilbo Handiak badaki aipatutako klabeetan bere posizioa indartu behar duela, horretarako oinarri diren alderdiak sustatu eta garatu

behar ditu. Alderdi hauen artean zortzi dira aipagarrienak: lankidetzak publiko eta pribatua; kalitatezko prestakuntza-sistema baten artikulazioa; nazioarteko lankidetzaren aldeko gizartea; hiri osasungarria eta segurua eratu; beste kulturak ondo hartzeko behar den kultura-modernitatea; hiria onera ekartzeko bultzada berria; lehiakorra, berritzailea eta jasangarria den gizarte-ekonomia eta enpresa sistema sortu; eta, azkenik, gizarte integratua eta integratzailea eratu.

Hausnarketa Estrategikoa eta berton identifikatutako Ikuskera abiapuntutzat hartuta, eta metropoliaren garapenaren perspektiba sistematikoa aintzat izanda egin zen "Bilbao 2010. Estrategia". Berori hiru elementu nagusitan oinarritzen da: pertsonak, hiriaren jarduerak eta metropoliaren erakargarritasuna. Hiru osagai hauen artean ezagutza dago, hau sistema dinamizatzeko erreferentzia da.

Bilbo moduko metropoli batek daukan benetako baliabide bakarra gizakia da, era berean edozein hiriren arrakasta ekonomikoa ez da nahikoa bertan bizi diren biztanleek ez badute aurrera egiten. Bigarrenik, balio erantsi handiko enpresa-jarduerak sistema metropolitarraren motorra dira. Herri-erakundeek enpresa-jardueren sustapenean garrantzia izan duten arren, punta-puntako enpresa-sarea eratzeke etorkizun-sena duten enpresaburu lehiatsuen beharra

dago. Azkenik, hiriak bizitzeko lekua izan behar du, bizitzeko egokia den tokia, gizakia gizaki bezala garapen bateratua eta solidarioa edukitzeko inguru aproposa.

Hiru elementu nagusiak definitu eta gero 2010 Plan Estrategikoa zenbait egitasmo estrategiko zehaztuko ditu. Hona hemen sailkapena:


Lehen mailako egitasmoak, garrantzi handikoak eta aurrekontu handiak behar dituztenak. Horien artean lehenengo laurak dira garrantzitsuenak, metropoliarentzako Planaren helburu estrategikoak lortzeko motorra izango baitira.

- Hiri-eremua eta "eraberritze zein ezagutzarako hiria" sortzea
- Erakusketa unibertsala
- Alde Zaharra proiektua
- Itsasadarra, hiriaren luzapen gisa
- Berritzaileak diren jarduerak sustatzeko gunea ezartzea
- Bilbo, ekimen berritzaileak proposatzeko eta eztabaidatzeko topa-gunea
- "Lifelong Learning" eta ezagutza aurreratuan sortu ahal izatea

Egitasmo Osagarriak delakoak ez dira garestiak eta eragin handikoak izan litezke. Egitasmo osagarriak lehen mailako egitasmoen osagarri badira eta jende askok bere gain hartzen baditu oso eraginkorrak dira. Egitasmo osagarri aipagarrienak honako hauek dira:

- Nazioartean enpresa kudeaketarako egitasmo aurreratua
- Metropolia planifikatzeko sistema koordinatua
- Zerbitzu publikoen kalitatearen konpromisoa
- Hiri-paisaia
- Inguruetako parkea
- Hiritarren segurtasuna
- Harremanak errazteko ingelesa jakitea
- Bilboko irudi korporatiboa

Proposatutako egitasmoak eta ekintzak martxan jarritz gero, Bilbo ekonomikoki dinamikoa, gizartearekin solidarioa eta kultura sortzaile aurreratua izango da. Horrez gain, lurralde orekatua eduki eta ingurumena errespetatuko du. Azkenik, erantsitako balio handia duten enpresa-jardueretarako inguru lehiakortzat hartuko den erreferentea izango da.







Lan metodologia

Hausnarketa estrategikoa aurrera atera ahal izan dugu Alonsotegik bere udal bizitzan maila guztietan dituen gizarte-ekonomiako eragileek zein erakunderik adierazgarrienek (ekonomia, enpresa, industria, merkataritza, hezkuntza eta kirol-arlokoek) parte hartu dutelako.

Foru honetako esku-hartzaileek elkarrekin eginiko lanaren helburua izan da Alonsotegi garatzeko eta mundu-mailako tokia bilakatzeko funtsezko osagaia aurkitzea. Alegia, udalaren neurri geografikoa eta biztanleria aparte utzita, nitxo estrategikoa mundu-mailako garrantzia izango duen lehiarako ahalmen bat garatzeko.

Proiektu edo egitasmo hau garatzeko, Bilbao Metropoli-30 Elkargoak hirien garapen estrategikoari buruzko nazioarteko ikerlan askorekin egiaztatutako metodologia erabili du. Metodologia hau teknika moderno eta tresnez baliatzen da. Tresna eta teknika horiek ikaskuntza eta berrikuntza handitu eta maila guztietan erabakiak hartzeko prozesua errazten dute eta beren baitan, besteak beste, egoeren azterketa, sozio-ekonomia adierazle-sistema eta sistema-teoriak daude.

Lanean eman dituen hamar urteetan, Elkartek eztabaida-lekuak eta lan-taldeak eratu ditu, bertan ikuspuntu sektorialak eta ekarpen heterogeneoak bateratzeko helburuaz. Emaizak guztion eztabaida eta adostasunaren emaitza dira.

Alonsotegin Hausnarketa Estrategikoa egitasmoa garatzeko hiru bilera burutu dira. Lehenengoan udalerrriaren testuinguru sozio-ekonomikoaren azterketa egin zen; bigarrenean, etorkizuneko Alonsotegirentzako ildo estrategikoen definizioan aurrera egin zen; eta azkenaren helburua izan zen Hausnarketa Estrategikoa agiria ugaltzea eta indartzea.

Gaur egungo Alonsotegiren testuinguru sozio-ekonomikoaren azterketa, Eustat, Inem, Bizkaiko Foru Aldundia eta Udaletik bertatik ateratako datu estrategikoei esker egin zen. Ekarpina lan-taldearen lehenengo bileran aberastu zen, egitasmoaren parte-hartzaileek egindako AMIA (DAFO) analisi batez. Bertan udalak dituen indarrak eta ahuleziak definitzeaz gain, kanpotik datozen aukerak eta mehatxuak zehaztu ziren. Hona sailkapena:

AHULEZIAK ETA MEHATXUAK

- Biztanleri beherapena.
 - Bizkaia edo Bilbo Metropolitarrarekin alderatuta goi mailako ikasketak egiteko tasa txikiak.
 - Bigarren hezkuntzako eskola azpiegituren eza.
 - Hotel eta jatetxeen zuzkidura urria.
 - Hiriaren hazkunde antolatu gabea.
 - Udalerria zatitzen duen errepidea.
 - Langabezia.
 - Aisialdi, kultura, kirol, etab. etarako udal azpiegitura gutxi.
 - Kanpoko irudi gabekoa edo narriatua.
-

INDARRAK ETA AUKERAK

- Industri tradizioa
 - Enpresen kokapena eta enplegu sortzea. Industrialdeak sortzeko aukera
 - Teknikari gaituak eta motibatuak.
 - Kokapen geografikoa
 - Babestu behar den landa-gunea. Berdeguneak
 - Bizitza kalitatea
 - Turismo garapenaren potentzialtasuna
 - Gizarte zerbitzuak
 - Kultura eskaintzari bultzada
-

Hurrengo bi bileretan eta azterketa hori abiapuntu izaki, etorkizuneko Alonsotegiri buruzko gako estrategikoen definizioan sakondu zen, hain zuzen ere, Estrategi Hausnarketa agiri honetan jasota daudenak.

Hori guztia etorkizuneko plan estrategiko bat izango den jarduera iraunkortzat har daiteke. Plan horrek hausnarketan jasotako gai ezberdinetan sakonduko du, aukeren arteko hautaketa egingo du eta gauzatu ahal diren proposamenak egingo ditu. Horrela bada, udalean egingo diren jarduera eta politika guztiak, hausnarketak zehaztutako helburuak lortzeko izango dira.





Alonsotegi udalerriko testuinguru sozio-ekonomikoa

4.0 KOKAPENA ETA GARAPEN HISTORIKOA

Alonsotegiko 21,4 kilometro karratuko azalera duen herri txiki bat da. Enkarterri eskualdeko atean eta Bilboko metropolialdean kokatuta dago, eta orotara 3.000 biztanle ditu.

Bilbo erditik 8 kilometrora dago, Cadagua ibaiak zatitzen duen haranaren beheko aldean. Bere inguruan Sasiburu mendilerroa (500 metro) eta Ganekogorta (998 metro) eta Pagasarri (673 metro) mendiak ditu. Zorrotza-Balmaseda BI-636 errepidearen norabideari jarraituz kokatuta dago. Errepide hori ibilgailu ugari erabiltzen du, egunero 20.000 batez beste, eta herriaren erditik doa.

Cadaguako Korridorea deritzon obra eraikitzeak (autobia bat) orografiak ezarri duen zailtasuna erraztea du helburu, hori izan baita Alonsotegiren garapen ekonomikoa baldintzatu duen ezaugarria. Aldi berean, egunero igarotzen duten ibilgailuen arazoa konponduko da. Dagoeneko, Bizkaiko Batza Orokorrak onetsi dute 2003. urtean Alonsotegiko saihesbidea egiten hastea.

Alonsotegik honako muga hauek ditu: iparraldean Barakaldo eta Bilbo; hegoaldean Arrankudiaga, Okondo eta Gueñes; ekialdean Arrigorriaga eta Bilbo; eta mendebaldean Gueñes.

2.140 Ha-ko azalera du, gehiena,

%95a, landalurrean eta mendi magalean. Horren ondorioz herriaren garapen urbanoa murriztu egin da, hala egoitzako nola ekonomia-jarduerako lurzoruari dagokionez.

Alonsotegi Euskadiko herririk menditsuenetako bat da, bere eremu txikian pasatzen delako itsas gaineko 50 metrora dagoen bere hirigunetik Ganekogorta mendi tontorreko 998 metrora.

Alonsotegik betidanik eduki izan du berezko aberastasun paregabea, Kantauriko animalia bertan ugari baitago. Inguralde honetan arte ikuspuntutik monumentu historiko nonahi ikus daitezke, eta bere paisaia edertasun handikoa da. Beraz, Alonsotegik xendazaletasuna eta mendiko bizikleta egiteko leku ezin hobea dugu. Halaber, erreka batzuk daude, euren mendi magaletan sortu eta Cadagua ibaira ura eramaten dutenak.

Barakaldo udalerriarekin 100 urtetik gorako epean anexionaturik egon ondoren, 1991ko urtarrilaren 1ean berriro ere udalerri independente egingo zen, bere historia luze eta ugarian ibilbide berri bati hasiera emanez. Gaur egun, administrazio aldetik Bilbo Metropolialdeko zatia da.

Gaur egungo udal mugarte Alonsotegik eta Irauregi barakaldar auzoak eratzen dute, azken hau Barakaldotik desanexio prozesuan sartua izan zen, Cadagua

ibaiertzetan Alonsotegirekin batera hirigune bakarra eratzen zuelako.

Udalerriak dituen komunikazioei buruz hitzen egiten dugunean, bereiztu behar ditugu hiriarteko komunikazioak edo hurbileko udalerriekiko harremanak eta herri barruko komunikazioak.

Alonsotegi oso kokapen estrategiko ona du, eta udalerrira heltzeko bide egokiak ditu. Bilbotik 8 kilometrora kokatuta dago eta Barakaldotik gertu, BI-636 errepidetik, FEVE trenbidean (Bilbo-Balmaseda trenbidea) edota Bizkaibus autobus-linea (Bilbo-Sodupe-Artziniega-Arespalditza) erabiliz udalerraren beharrak betetzen dira komunikazioei begira.

Hala ere, eta hiri barruko komunikazioak kontuan hartuta, ohartzen gara herria bi zatitan banatuta dagoen BI-636 errepideak zein Cadagua ibaiak. Zatiketa honek udalerraren haustura dakar txarto komunikaturik dauden bi gunetan. Izan ere, lotura bakarra zubi zaharra da, eta uholdeak daudenean bertan urak gainezka egiten du.

Arazo honi aurre egiteko zubi bat eraiki beharko litzateke gorago, horretarako Udalak kudeaketak hasita ditu Ur Zerbitzuarekin, eta dagoeneko adostuta dago bere kokapena.

Garapen historikoari dagokionez, esan behar da bi etapa daudela: Barakaldotik desanexionatu baino lehen eta ondoren. Alonsotegi

udalerri berria 1991ko urtarrilaren 1ean sortu zen, Bizkaiko Udal Mugapeak arautzen dituen otsailaren 11ko 87/2 Foru Arauan araututa dauden hiru egintza garrantzitsutan burutuko zen gestazio luze baten ostean.

Egintzok honako hauek izango ziren:

- 1.- 1989ko abenduaren 21ean eginiko Aparteko Bilkuran Barakaldoko Udalbatza Osoak desanexioa onetsi zuen, bilkurako 27 partaideek berretsita.
- 2.- Udalerri berria eratako zuten bizilagunen arteko 1990eko apirilaren 22an eginiko erreferenduma, bertan 1.114 bizilagunek baiezko botoa eman zutelarik.
- 3.- 1990eko azaroaren 20an, Gernikan eginiko Osoko Bilkuran Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez emaniko onespena.

Esan bezala, Cadagua ibaiak banatzen dituen bi lurralderen batasunak Alonsotegi udalerri berria eratu du. Lurraldeok Alonsotegiko lehengo elizatea eta 1990eko abenduaren 31 bitartean Barakaldokoa izango zen Irauregi auzoa ditugu.

Sorrera eta kokapenari dagokionez, 1300. urtearen aurretik Alonsotegi toponimoa ez da agertzen agiri bakar batean ere. Ostera, Pertxeta

eta Azordoiaga izenak ezagunak ziren. Hauek "El Intruso" izenaz ezaguna zen Diego Lopez de Haro V.ak aipatzen baitzituen 1300eko ekainaren 15ean, hain zuzen ere Bilboko fundazioaren hiri-gutunean.

Alonsotegiko historia lau epealdi handitan zati genezake:

- a) Arrigorriaga udalerriko zati bat izan zen XV. mendearen bukaerara arte edo XVI.aren hastapenera arte.
- b) XVI. mendetik 1888ko azaroaren 13ra arte elizate independentea izan zen.
- c) 1888ko azaroaren 13tik 1999ko azaroaren 31ra arteko epealdian Barakaldo udalerriari lotuta egongo zen.
- d) 1991ko urtarrilaren 1ean hasitako etapa berria, egia bihurtu den antzinako nahia, eta honela Irauregi auzoarekin elkartuta udalerri berria eta bereizia eratu da.

XV. Mendea:

Frai Martin Koskojalesen aitaldeko aitona-amonek San Antolin eliza eraiki zuten. Mende honetan zehar Alonsotegiko lehengo elizatea Arrigorriagakoa zen.

XVI. Mendea:

Arrigorriaga herriarekiko banantzea mende honetan hasi zen.

San Bartolome elizaren eraiketa izan zen egintzarik adierazgarriena, bertan Jaurerriko elizateen ohiturari jarraituaz, iganderoko meza entzun ondoren, Errepublikaren herri-intereseko auziak hitzartzeko eta xedatzeko biltzen ziren.

XVII. Mendea:

Alonsotegi eta Arrigorriagako elizateek 1647ko urriaren 24an mendiak eta zelaia nola gozatu eta aprobetxatu behar zireneko "Adiskidetze-Idazkia" sinatu zuten *"modo y forma en que han de gozar y usufructuar en lo sucesivo los montes que están desde lo alto de Muniaran el aprovechamiento de pastos y herbajes y el gobierno político y peculiar que cada una de ellas ha de observar con otras cosas que resultan de dicha escritura"*.

XVIII. Mendea:

Alonsotegiko elizatean mende honetan jasotako gi gertaera nabari aipatzen dituzten bi dokumentu garrantzitsu daude:

- Alde batetik, 1763ko ekainaren 21ean Jose de Zabala y Miranda jaunak Madrilen sinatutako testamentua, honetan apaizaren egoitza eta herriko umeen lehen mailako eskola izan behar zen etxe bat eraikitze aginduak agertzen dira. Pribilegio hau Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbait herri nabarik ere ez zuten izan.
- Eta bestetik, Alonsotegi eta

Arrigorriagako elizate eta Bilboko hiribilduaren arteko "Adiskidetze Eskritura" berri bat. Azken honek, hiribilduak Ganekogorta mendian eraikitako izoztegi berriko kokapenaren onespina ematen du, eta Abandoko San Vicente elizatean 1777ko abuztuaren 7an sinatu zuten.

XIX. Mendea:

Mende honetan oso nabaria izan zen azken Karlistadak Alonsotegiko elizatearen arketan sortuko zuen ondorio negatiboa, berau ziorik garrantzitsuena izan zen Alonsotegiko bizilagunek Barakaldoko elizatean sartzeko eska zezaten.

1878ko azaroaren 24ko gaztigu honek Manuel Zabalaren sinadura eta "Alcaldía de Alonsotegi" dakarren zigilua daramatza.

Kontuan hartzen badugu, hamar urte beranduago, Barakaldon sartzean, Jose Zabala idazkariak Alonsotegiko elizatean 61 baserri (alegi, 300 biztanle gainetik oso gutxi) daudela ziurtatzen duela, erreaz ohar gaitezke aipaturiko elizateak nahi gabe jasan behar izango zuen zama ekonomiko izugarriaz.

Hornidura hauek eta beste zenbait prestazio pertsonal ordaindu ahal izateko, Elizateak erreal askoko kredituak eskatu behar izan zituen. Hartzekodunak maileguz emanikoak gehi hitzarturiko interesak erreklamatzeko hasi

zirenean, Alonsotegik jendaurrean zorra egiaztat aitortu zuen, baina ez zuen topatzen ordaintzeko biderik. Anexioaren ideia orduantxe sortuko zen, hau aurrera atera zen eta horren izapidea 1888ko azaroaren 13an amaitu zen.

XX. Mendea:

Mende honetan zehar eta 1990eko abenduaren 31 arte ondorio guztietarako Barakaldo udalerriaren menpe egon zen. Demografiari dagokionez, Barakaldoren barruan anexionatu zeneko antzinako elizateak zeuzkan 61 familia, alegia 320 biztanle gutxi gora-behera, izatetik gaurko udalerri berrian (Irauregiarekin batera) 3.058 biztanle izatera pasa gara.

Alonsotegi herria etorkizunari begira dago, eta baikorrak gara aldeko faktore ugari dugulako, hala nola: Bilbo, Bizkaiko Lurralde Historikoko hiriburutik gertu gaude; gizarte eta kultura jarduera ugari egiteko aukera dago; eta, azkenik, ingurugiroari dagokionez toki atseginak daude, izan ere, bere atsedenlekuak, zelai berdeak, basoak eta Pagasarri, Ganekogorta eta Sasiburu mendi ederrak ondo baino hobeto aprobetxa daitezke, eta horri esker bisitariak ibilbide atseginak egin ditzakete geure bidezidor eta landa-bideetatik zehar.



4.1. BIZTANLERIA ETA GIZA BALIABIDEAK


4.1.1 Biztanleriaren Ezaugarriak

4.1.1.1 Biztanleriaren bilakaera

Lehentxeago esan bezala, kokapena eta garapen historikoaren atalean, alegia, Alonsotegi Barakaldoko herritik desanexionatu eta 1991. urtean udalerri independente bilakatu zen. Hau dela eta, ezin dugu data honen aurretiko biztanleriari buruzko daturik izan.


Hala eta guztiz ere, azken hamarkada honetako datuak abiapuntutzat ditugula, udalerriko biztanleriaren beherakada nabarmena ikus daiteke. Era berean, beherakada hau EAEn eta beronen barruan Bizkaiko Lurralde Historikoan zein Bilboko Metropoli inguruan bizi izaten ari garen joera orokorraren ildo berean dago, azken hauetan are latzagoa delarik.

Gauzak horrela, orokorrean esan daiteke EAEk bere osotasunean 80ko hamarkada arte biztanleriaren bilakaera positiboa izan zuela, izan ere, garai horretan bizi izan genuen industriaren hazkuntza ekonomikoarekin lotura zuzena izan zuen aipatu bilakaerak. Horren ostean, 70eko hamarkadaren bihotzean izandako krisialdiaren ondorioz, inflexio-unea etorri zen. Gaur egun, aldiz, inflexio hura atzerakada nabaria bihurtu da eta aurreikus daitekeenez hazkuntza begetatiboa negatiboa izatera iritsiko da. Horrela, azken hamarkada honetan, hazkuntza demografikoa geldotu egin da, are gehiago, Bizkaia kasuan 22.000 lagunetik gorako biztanleriaren galera izan dugu. Hau guztia, faktore anitzek eragiten dute, hala nola, emigrazioek eta hazkuntza begetatibo negatiboak, besteak beste. (1. Grafikoa).



Ildo honetan, Alonsotegi ere Bizkaiko Lurralde Historikoa zein EAE bere osotasunean bete betean ukitzen dituen eta 90.eko hamarkadan areagotu den biztanleriaren urripen prozesu honetan murgilduta dago.

unetik hona 388 herrikide galdu dituelarik. Aipaturiko biztanle jaitsiera hau, 1998tik 2002ra doan bosturtekoan areagotu da, batez ere, epe horretan, urtero batez besteko 41 lagun galdu dituelarik. (2. Grafikoa)



Gaur egun, aipatu urripena, eragile anitzek bideratu dute, batetik, jaiotze tasaren bat bateko jaitsiera eta bizi itxaropenaren luzaketa, 65etik gorakoen adin taldeetan zama handiagoa izaten ari dena (Alonsotegiren kasuan are nabarmenagoa da biztanleriaren egituraketa aztertzerakoan, ikusi ahal izango dugunez) eta bestetik, migrazio prozesuen geldialdia eta zenbaitetan prozesu hauen atzeragarritasuna.

Biztanle kopuruari dagokionez, Alonsotegiko gaur egungo biztanleria 2.687koa da, desanexio

4.1.1.2 Egungo biztanleriaren egitura.

Alonsotegiko biztanleriaren egituraren azterketak oso biztanleria zahartua duen udalerria azaleratzen du, herritarren ia %22k 65 urtetik gorakoak dira, ehun lagun bakoitzetik 10ek 18tik beherakoak diren bitartean. Honek adierazten duena, zera da; demografiaren atzerakadaren joera orokor hau askoz ere nabarmenagoa dela Alonsotegin: Dena dela, esan beharra dago, Alonsotegin lan egiteko adinean dagoen biztanle ugari dagoela, izan ere,

%68 18 eta 65 urte bitartean baitaude.

Zeharo deigarria da, bestalde, sexua eta adinaren aldagaiak elkarrekin aztertuz adinik nagusiena dutenen taldean emakumearen ordezkaritza handiagoa %60,09koa baita gizonezkoen %39,02 horren aurrean, talde bien arteak aldea azkenean %21,07ko dela. Hala eta guztiz ere, emakumezkoen nagusitasun hau adin talde horretan baino ez da nabaria, gainontzeko taldeetan gizonezkoak dira gehiago, baina, egia esan, aldea ez da batere esanguratsua (1. Taula)

dena, Alonsotegiko Udalerria jasaten ari den zahartze prozesua da, batez ere, jaiotzen tasaren beherakada eta, era berean, hilkortasunaren areagotzeak eragiten duten prozesua, eta horrekin batera, bizi itxaropenaren luzatzearen ondorioz, biztanleriaren piramidea zabaldu egiten da bere oinarrian.

4.1.1.3 Berezko mugimendua eta migrazioa.

Herri baten biztanleriaren portaeraren bilakaera bi osagitan datza, batetik, berezko mugimenduak edo saldo

1.TAULA: Biztanleriaren banaketa sexua eta adinaren arabera (%). 2002			
Adin tarteak	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0-18 urte	51,57	48,42	10,6
18-30 urte	50,29	49,7	18,79
31-65 urte	50,86	49,13	49,23
> 65 urte	39,02	60,09	21,36
Iturria: Alonsotegiko Udala			

Adin talde gazteetako gizonezkoen nagusitasun hau, emakumezkoen nagusitasuna bilakatzen da bizitzaren azken urteetan. Prozesu hau biztanleriaren zahartzearen ohiko ondorioa besterik ez da, honetaz gain, bizi itxaropena luzeagoa izaten da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino eta Alonsotegi ere horren adibide ona da.


Edonola ere, benetan aipagarria

begetatiboa, sasoi jakin batean toki horretan gertatzen diren heriotza eta jaiotzen arteko aldeak adierazten duena, eta bestetik, migrazio mugimenduak, hau da, aipatu herrian izandako biztanleriaren irteera eta sarreraren arteko aldea.

Alonsotegiko berezko mugimenduari dagokionez, aztergai dugun epean, hots, 1999-2001, jaiotzen kopuruaren jaitsiera nabarmena ikus dezakegu, eragile

askok bideratuta egon daitekeena, hain zuzen. Eragile hauen artean honako hauek daude; ikasteko sasoiaren luzapena, emakumearen lan merkaturatzea eta beronek dakarren ezkontzeko adina eta umeak izateko adinaren atzerapena,

izan dugun biztanleriaren zahartzearen ondorio zuzena da, batez ere, eta baita 25 urteko epean hilkortasun tasa ia bi puntutan gehitu izanaren eragilea ere. (3. Grafikoa)



etab., aipatutako faktore hauek eragina izan dute arian arian beherantz doan jaiotzen tasan, Alonsotegin ez ezik Bizkaian eta EAEn ere bai.

Heriotzen kopuruari dagokionez, areagotze nabarmena ikus daiteke 1999tik 2000 urte bitartera, harrezkero, 2001 urtean, apal-apal jaisteko berriro ere. Dena dela, edozein kasutan ere gertakari hau ez da Alonsotegira mugatu, Bizkaiko Lurralde Historikoan ez ezik EAEn orokorrean ere bizi izan baita. Horrezaz gain, aipatu gertakaria azken urteotan jasan

Horren ondorioz, jaiotzen urritzeak eta hilkortasunaren areagotzeak (2001. urtean 11 jaiotze izan ziren 21 heriotzen aurrean, hots, heriotzak jaiotzen ia bi halako izan ziren) udalerriko hazkuntza begetatiboa negatiboa izatea eragin du (2. Taula), gainera, udalerriak bizi izan duen biztanleriaren beherakadaren karietako bat delarik.

Bestalde, Alonsotegiko biztanleriaren EAEtik kanporako migrazio mugimenduei erreparatuz gero, kanpo migrazio saldoa negatiboa dela nabarmendu behar

2. TAULA Alonsotegi, jaiotze eta heriotza kopururen bilakaera (1999-2001)		
Urte	Heriotzak	Jaiotzeak
1999	23	23
2000	53	13
2001	21	11
Guztiak	97	47
Iturria: Alonsotegiko udala.		

dugu (-6)., hau izanik, beraz, udalerriko biztanleriaren galeraren eragile erabakigarrienetako bat.

Era berean, EAE barruko migrazioak kontuan harturik, migrazio saldoa ere negatiboa dela ikus dezakegu, (-28), hau da, udalerria utzita EAEko beste tokiren batera joateko irteten direnak bertara datozenak baino gehiago dira. (3. Taula)

Laburbilduz, honako hau esan daiteke; Alonsotegiko Udalerria desanexionatu eta udalerri independente bilakatu zen unetik aurrera ukitzen duen atzerapen demografikoa, joera orokorraren osagaia izateaz gain, negatiboak diren hazkuntza begetatiboa eta migrazio saldoaren ondorioa ere badela, hein handi batean.

3. TAULA. Lurralde esoarruen arabeko migrazioa. 1996			
	Bizkaia	Bilbo Handia	Alonsotegi
Inmigrazioa	7,607	6,310	8
Emigrazioa	9,791	8,427	14
Kanpo migrazio saldoa	-2,184	-2117	-6
Helmuga barne migrazioa	18,090	12,540	35
Abiapuntu barne migrazioa	18,163	13,648	63
Barne migrazio saldoa	-73	-1,108	-28
Udalerri barruko migrazioa	35,403	28,361	41
Iturria: Eustat			

4.1.1.4 Biztanleriaren dentsitatea.

Alonsotegiko biztanleek oso talde urria osatzen dute EA Eren barruan, izan ere, 2.687 baino ez dira, EAEko 2.089.095 hauen aurrean. Horixe bera gertatzen da Bizkaiko Lurralde Historikoarekin alderatuz gero, azken honek 888.000 biztanle ditu eta.

Dentsitateari dagokionez, Alonsotegi dentsitate ertaineko udalerria dugu, batez ere, bere hedadura eta biztanle kopurua kontuan hartuta eta 1000 eta 3000 biztanle dituzten Bizkaiko beste udalerri batzuekin erkatuz gero.

4. taulan ikus daitekeenez Alonsotegiko dentsitatea km²-ko 135,2 biztanlekoa da, Bizkaia osokoa 514,2koa den bitartean. Dena den, kopuru hau ez da hain handia Bilbo Metropolitarraren dentsitatearekin erkatuz gero, 2.193,6 baititu azken honek.

Illo honetan, ez dugu ahaztu behar Alonsotegik gutxi gorabeherako 20 km² ko hedadura duela eta hauetatik gehiena basoak eta lantzeko soroak direla, honenbestez, herritarrak oso gune txikian biltzen dira, BI-636 errepidearen norabidean abiatzen den Cadagua ibaiaren bi ibarretara zabaltzen den gutxi gorabeherako kilometro karratuan, hain zuzen ere.

Lehenago aipatu dugun bezala, Udalerriko datuak 1000-3000 biztanle artean duten Bilbo Metropolitarraren beste herri batzuekin erkatuz gero, ondorengo hau esan dezakegu: Alonsotegiko Udalerria batez besteko dentsitate oso gertu dagoela, beronena km² 135,2 biztanlekoa baita, aipatu motatako beste zenbait herritakoak honako hauek direla; Larrabetzu km² _ko 70, 6 biztanle dituen, Loiu km² -ko 110,2 edo Lezama 124,7 biztanleduna, besteak beste, adibideren bat aipatzearren.

4. TAULA Biztanleriaren dentsitatea

	Biztanleak	Dentsitatea (Bizt/Km ²)
Bizkaia	1.140.026	514,2
Bilbo Metropolitarra	887.977	2.193,60
Lezama	2.057	124,7
Loiu	1.686	110,2
Larrabetzu	1.518	70,6
Alonsotegi	2.894	135,2
Iturria: Eustat		

4.1.2 Hezkuntza Ezaugarriak

4.1.2.1 Instrukzio maila

Herritarren instrukzio maila erakuslerik adierazgarrienetako bat izaten da biztanleriaren egituraren aldean azterketa egiterakoan. Aldagai hau garrantzirik gabekoa izaten da haur eta lehen hezkuntzan, baina, adin talde honetan eskolaratzea derrigorrezkoa den heinean, orduan bai, adierazten ditu aldeak hezkuntza sistemako goi mailako esparruetan.

Azpimarratu beharra dago bestetik, egungo gizartean ezagutzak eta berrikuntzek duten garrantzia kontuan harturik, badirudi ondotxo jakina dela ondo prestatu eta gaitua den biztanleria oinarritzko baldintza dela lan merkaturako sarrera gutxieneko bermea duela bideratzeko.

Esparru honi dagozkionez, ditugun zifrak aztertuz gero, hasiera batean hezkuntza ezberdintasunak ikus

daitezke, alde batetik, Alonsotegiko Udalerria, eta bestetik, Bizkaia zein Bilbo Metropolitarraren artean. Alonsotegin goi-ertain ikasketa maila dutenen kopurua %9ren ingurukoa da, baina Bizkaian eta Bilboko Barruti Metropolitarraren %16koa gutxi gorabehera, alegia, 7 puntuko aldea gorantz, hau, alde nabarmena izaki.

Itxurazko prestakuntza eskasago hau nabaria da goi eta erdi mailako ikasketak dituztenen ehunekoak ez ezik, bigarren mailako ikasketak dituztenen ehunekoak aztertzeotan ere, azken hauek udalerrian %11, 37 izanik, eta %15,9 eta %16,43 Bizkaian eta EAEn, hurrenez hurren.

Egon badago beste talde bat eta aipatu beharra dugu; Alonsotegin bai Bizkaian (%14,08) bai EAEn (%13,68) baino portzentaia altuxeagoa duena (%14,6), Lanbide Heziketako ikasketak burutu dituztenen taldea, alegia. Ildo honetan, ondo azpimarratu nahi dugu, ikasketei dagokienez

5. TAULA: Ikasketa maila (%). 1996

	Alonsotegi	Bilbo Metropolitara	Bizkaia
Alfabetatubakoak eta ikasketari	3.99	6.69	6.65
Haur eta lehen hezkuntza	61.04	46.31	47.29
Lanbide Heziketa	14.6	13.68	14.08
Bigarren Mailako hezkuntza	11.37	16.43	15.9
Goi-ertainak	3.8	6.03	5.91
Goi ikasketak	5.17	10.48	10.14
Iturria:Eustat			

prestakuntza ona izateak ez duela zertan Unibertsitate ikasketarik eskatzen, Lanbide Heziketak lan merkaturatzeko trebakuntzarako aukera ona eta egokia baita. (5. Taula)

Orain arte aipatu ditugun datuak gorabehera, Alonsotegin goi ikasketak dituztenak gutxi izate hori, hein handi batean, gazte jendearen ordezkaritza urriagoak eragin dezake, alegia, ikasteko sasoian dagoena, biztanleriaren egituraren azterketa egiterakoan ikusi ahal izan dugunez. Datu hau garrantzi handikoa da, goi ikasketen joera azken urteotan ugaltu dela kontuan hartzen badugu.

4.1.2.2. Hezkuntza eskaintza

Hasteko, hezkuntzaren erregimen orokorrari buruzko aipamen txiki bat egingo dugu, ondoren Alonsotegiko ezaugarri zehatzak aztertuta ahal izateko.

Erregimen orokorreko irakaskuntza ondorengo era honetan antolatzen da:

- Haur hezkuntza eta maila honi dagokion hezkuntza berezia (4 maila). Haur hezkuntzarako litekeen eskale taldea 0-6 urte bitarteko herriko haurrek osatzen dute.
- Lehen hezkuntza (6 maila).
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza, DBH, (4 maila).

- Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo (DBHO), Batxilergoa (2 maila), edota formazio zikloetako Heziketa berezia (2 urtez).

- Goi mailako formazio zikloak.

- Unibertsitate ikasketak.

Alonsotegiko udalerrian, haur eta lehen hezkuntzarako eskola publiko bakarra dago, Alonsotegiko Herri Ikastetxea, hain zuzen ere. Eskola honetan, ikasketa hauei dagokien adina izanik bertan hezi nahi duten herriko neska-mutil guztiek ikasten dute.

Herriak ez du, beraz, lehen hezkuntzatik aurrerako mailetan ikasi ahal izateko inolako erakunderik, ez publiko ez pribaturik. Hau arazo larria da, ikasleak ikasketekin aurrera egin nahi izanez gero Bilbora, Zorrotza zein Sudupera joaten beharturik baitaude.

4.1.2.3. Euskara

Alonsotegiko Herri Ikastetxearen ereduaren eskaintza kontuan harturik, honako hau esan behar da; haur hezkuntzan ari diren ikasle guztiek, hots, %100 D ereduari dihardutela, eredu hau, ikasgai guztiak euskaraz burutzen diren ereduak izanik. Lehen hezkuntzan, berriz, %10,6k A ereduari ikasten dute, bertan, euskara ikasgai huts gisa irakasten delarik. Horren aurrean, ikasketak D ereduari burutzen segitzeko

aukeraren alde egiten duten %89,4ko taldea dugu. Aipagarria da dena dela A ereduaren izena ematen dutenen kopurua beherantz joan izana azken bi urteotan, 2000-2001 ikasturtean %9,5 izatetik 2001-2002 ikasturtean %5,49 izatera igaro izanik.

Datu hauek guztiak kontuan izanik eta EAEkoekin erkatuz gero, argi dago haur hezkuntzan eredurik hautatuena ere D ereduaren dela, izan ere %58,4k aukeratu baitute A-X ereduaren aurrean, %12,6 duena. Era berean, azpimarratu beharra dago, lehen hezkuntzan D ereduaren dauden ikasleen ehunekoa beste ereduetakoa baino handiagoa dela %46rekin A-X ereduaren %25ekin atzetik duela. (6. taula)

- Alonsotegiko biztanleriaren %14,6 euskalduna da, hau da, euskara ondo ulertu eta hitz egiteko gai direnak, hauen artean, batetik, euskaldun zaharrak ditugu (%1,6), hauek, ama hizkuntzatzat euskara izan dutenak dira, bestetik, jatorrizko elebidunak (%0,9), ama hizkuntza bezala bai euskara bai gaztelania izan dutenak eta amaitzeko, euskaldun berriak (%12,13), jatorrizko hizkuntza, alegia, ama hizkuntzatzat euskaraz beste hizkuntza bat izan dutenak.
- Alonsotegiarren %18,52 elebidun pasiboak dira, hau da, euskara zailtasunez hitz egiten dutenak edo, ez hitz egitekotan, ondo

6. TAULA. Hezkuntza elebidunaren ereduak (%). 1999-2000

	Haur hezkuntza			Lehen hezkuntza		
	A-X	B	D	A-X	B	D
E.A.E	12.6	29	58.4	25	29	46
Bizkaia	16.9	27.9	55.2	35	23.6	41.4
Alonsotegi			100	10,6*		89.4
* Alonsotegin ez dago umerik * ereduaren						
A; Euskara, ikasgai bezala baino ez dute ikasten. X; Ez dute euskara ikasten						
B; Hezkuntza elebiduna						
D; Ikasgai guztiak euskaraz ikasten dituzte						
Iturria: Eustat						

Bestalde, Alonsotegin jasotako euskararen ezagutzaren inguruko datuei dagokienez, ondorengo lerrootan aipatuko ditugu esanguratsuenak.

ulertu edo irakurtzeko gai direnak. Era berean, talde honen barruan honako hauek ditugu, batetik, sasi euskaldun berriak (%17,95), ama hizkuntzatzat euskara ez den beste bat izan

dutenak eta bestetik, neurri batean erdaldundutakoak (%0,57), ama hizkuntzatzat euskara zein euskara eta gaztelania izan dutenak.

- Bestalde, Alonsotegiarren %66,72 erdaldun elebakarrak dira, euskara ezagutzen ez dutenak, hau da, hitz egin, ulertu eta irakurtzen ez dakitenak. Hauen artean ere badira taldeak, hala nola, guztiz gazteleratuta daudenak (%0,49), euren ama hizkuntza euskara zein euskara eta gaztelania izan dutenak eta azkenik, gaztelania hiztunak (%66,23), ama hizkuntzatzat gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat izan dutenak.

Datu hauek guztiak, orokorrean, bat datoz Bizkaiko Lurralde Historikokoekin, bertan, biztanle gehienak ere (%58,45) gaztelania hiztunak diren heinean. (7. Taula).

4.1.3. Familia eremuaren ezaugarriak

4.1.3.1 Familiaren egitura eta osaketa

Azken urteotan familiari edo familia guneei dagokienez bizi izaten ari garen aldaketak, hots, tipologia, rolak, neurria eta egituraketak dira bizi garen gizarte honen ezaugarriarik nabarmenetako batzuk. Aldaketa hauek, garai batean ohikoa zen familia ereduarengan dute eragina; betiko aita/ama/semi-alabek osatutako eredutik familia eredu berrietarako jauzia egin dugu, guraso bakarreko familiak zein lagun bakarrekoak, besteak beste.

Gure gizartean, biztanleriaren antolaketa erarik ohikoena, gehien batean, "funtsezko familia" deritzona da, guraso eta seme-alabez osaturikoa. Hala ere, egon badaude bestelako tipologia batzuk ohiko

7. Taula. Hizkuntzaren higiduraren tipologia

	Alonsotegi	Bizkaia
Euskaldun zaharrak	1,6	12,48
Jatorrizko elebidunak	0,9	2,07
Euskaldun berriak	12,13	9,13
sasi euskaldun berriak	17,95	15,74
Neurri batean gaztelaniaituta	0,57	1,47
Guztiz gaztelaniaituta	0,49	0,6
Gaztelania hiztunak	66,23	58,45
Iturria: Eustat		

gune horren oinarria hedatu edo murriztu egin ezker sortzen direnak.

Alonsotegiko Udalerrian nagusitzen den familia eredua ohikoa da, seme-alabak dituen funtsezko familia, hau da, senar-emazte eta beraien ezkongai dauden seme-alabez osatutakoa. Hauek, herrian dauden familien %43,9 osatzen dute, hain zuzen ere.

Horren ondoan, lagun bakarrez osatutako familien taldea dugu, gizabanaz osatutakoak %17,9rekin. Famili eredu hau goraka doa bi arrazoiengatik batez ere; batetik, bizi itxaropenaren luzapena eta bestetik, biztanleen zahartzeagatik.

Bestalde, seme-alabarik gabeko funtsezko familiak ere badaude %16,4ko taldea osatuz, orokorrean, bikote ezkonberriak izaten dira hauek, eta azkenik, oso hedadura txikia duten senitarte taldeak, hala nola, famili konposatuak eta gune anizdunak, %2,6 eta %2,9rekin hurrenez hurren.

Amaitzeko, guraso bakarreko familiei dagokienez; alargun, dibortziatu, eta banandutakoak, alegia, %8,8 baino ez direla esan behar da, hau da, udalerriko 100 senitarte bakoitzeko 9 gutxi gorabehera.

Udalerriko datuak Bizkaiko Lurralde Historikokoekin erkatuz gero, haxe da atera daitekeen ondorioa; Bizkaian nagusitzen den taldea, %47ko emaitza duela, seme-alabadun funtsezko familien taldeari dagokiona da, Alonsotegin bezala, baina seme-alabarik gabeko funtsezko familiei dagokienez (%15,6), berriz, Bizkaian lagun bakarreko familien gainetik daude (%15) emaitza hau, Alonsotegiko datuekin bat ez datorrela.

Hala ere, aldea oso txikia denez, esan daitekeena da Alonsotegiko familien egituraketa, Bizkaiko gainontzeko aldeetan zein EAEn orokorrean ematen den ildo beretik doala. (8. Taula)

8. Taula. Familia eredunak(%). 2002


	E.A.E	Bizkaia	Alonsotegi
Senide bakarrek	15,38	15,03	17,9
Konposatua	2,87	2,68	2,6
Funtsezkoa seme-alabarik	15,47	15,65	16,4
Funtsezkoa seme-gabekoa	46,79	46,96	43,9
Guraso bakarrek	9,49	9,66	8,8
Handitua	7,31	7,28	7,5
Gune-anitza	2,65	2,72	2,9

Iturria: Eustat

Familiaren batez besteko neurriari dagokionez, Alonsotegin neurri txikiko familia nagusitzen da, azken aldi honetan EAEko esparru osora hedatzen diharduen joerarekin bat etorriz. Hala ere, Alonsotegiren kasuan askoz indar handiagoz areagotzen da, biztanleriaren beherakadan eragile erabakigarria bihurtuz.

Udalerrian familien batez besteko neurria 2,95 senitartekoa den bitartean, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta EAE osoan 3,04 eta 3,05 era igotzen da, hurrenez hurren. (4. Grafikoa)

4. grafikoa. Alonsotegi, familien batez besteko neurria.1996





4.2. JARDUERA EKONOMIKOA

4.2.1. Balio erantsia

9. Taulan ikus daitekeenez, Udalerrriaren balio erantsiaren egitura, Bilboko Barruti Metropolitarra eta Bizkaiko Lurralde Historikoarekin erkatuta adierazten den honetan, Alonsotegik azken honi dagokionez, ekonomia sektore guztietan antzerako balio erantsiaren egitura dauka, dena dela, aldeak ikus daitezke Bilbo Metropolitarrarekin alderatuz gero.

Metropolitarraren ehuneko apalenak dituena, ez batean eta ez bestean %2ra heltzen ez delarik, dena dela esan beharra dago ehunekorik handiena Alonsotegiri dagokiola, %1,7rekin.

Ondorioz, aurreko datu hauek bat datoz orokorrean Bizkaia eta Bilbo Metropolitarrarekin, bertan ere, ehunekorik handienak zerbitzuen sektorean baitaude, Bizkaian %59,43 eta Bilbo Metropolitarraren %64,81 duela. Bigarren maila batean industrigintza dugu %39,46

9. TAULA. Balio erantsiaren egituraketa (%).1996				
	Guztira	Lehena	Industria/ eraikuntza	Zerbitzuak
Bizkaia	100	1,11	39,46	59,43
Bilbo Handia	100	0,16	35,03	64,81
Alonsotegi	100	1,7	39,8	58,5
Iturria: Eustat				

Bizkaia eta Bilbo Metropolitarraren kasuan jazotzen den moduan, udalerrrian ere zerbitzuen sektorea da nagusia, izan ere, bere Barne ekoizkin gordinaren (BEG)ren %58,5 beronengandik dator, hala eta guztiz ere, nabarmendu egin behar dugu gaur egun, oraindik ere, industria alorrak bere BEGren %39,8rekin duen itzala (Bizkaia duen antzerako ehunekoa baina Bilbo Metropolitarrak duenetik lau puntu gorago dagoena).

Bestalde, lehen sektorea da bai Alonsotegin bai Bizkaian zein Bilbo

eta %35,03rekin hurrenez hurren.

4.2.2. Langabeziaren azterketa eta bilakaera

4.2.2.1 Langabetuen kopuruaren bilakaera

Alonsotegiko 2001eko hirugarren hiruhilabete zeharreko langabezia tasa %11,39koa izan zen. Eraitza hau Bilbo Metropolitarraren (%9,26) zein Bizkaian (%8,71) jasotakoa baino handiagoa da, eta are handiagoa, EAEn (%7,93) jasotakoa baino. (10. Taula).

10. TAULA. Urteko langabezia tasaren bilakaera. (%)

Urtea	Alonsotegi	Bilbo Metropolitarra	Bizkaia	E.A.E.
2,000	11.39	9.19	9.26	8.31
2,001	11.39	9.26	8.71	7.93

Iturria: Alonsotegiko Udala


Dena dela, datu hauek 1998. eta 1999. urteetakoekin parekatzen baditugu, aipatu urteetako portzentaia handiagoa zela eta arian-arian urrituz joan dela esan daiteke, 1998. urteko %14,92tik 1999ko %13,11ra eta hortik, gaur egunean 1,72 puntu beherago gauden ehunekoetaraino helduta, hortaz, Bilbo Metropolitarra edo Bizkaiarekin erkatuz gero, beherakada handiagoa izan dela esan beharra dago.

Hala ere, udalerrian 2000ko hiruhilabete berean jaso izan diren datuak, hots, urtebete lehenago, kontuan hartuz gero, argi ikus daiteke langabezia tasak ez duela aldaketarik jasan izan, ehuneko berean baitirau, %11,39; alegia. Bestalde, EAEn jaso diren datuei erreparatuz gero, 2000 eta 2001eko hirugarren hiruhilabeteen artean, 0,38ko beherakada ikus daiteke, %8,31tik %7,93ra, hain zuzen, Bizkaiari dagokionez, aldiz, %0,55eko jaitsiera dago.

Sexuaren araberako langabezia tasari erreparatuz gero, emakumezkoen artean handiagoa bada ere, gizonezkoen artekoa areagotu egin da, emakumeei dagokiena, berriz, 1998z geroztik, arian-arian eta modu nabarmenean, beherantz joan delarik.

Gizonezkoei dagokien langabezia tasak %2,5eko igoera izan du, 1998ko azken hiruhilabeteen zeuden %43,5etik 2001eko hirugarren hiruhilabeteko %46ra iritsita, bestalde, emakumeen langabeziari dagokionez, honek %2,5eko beherakada izan du, denbora epe berean. (5. Grafikoa).

5. Grafikoa. Sexuaren arabera langabezia tasaren bilakaera.(%)




Sexu eta adinaren aldagaiak elkarrekin kontuan hartuz gero, langabezia tasarik handien jasaten duen taldea 25 urtetik beherako emakumeena da,%71,40ko ehunekoarekin.

Emakumeen langabeziaren ehuneko handiago hori, adin talde

gehienetara hedatzen da, 35-44 urte bitartekoan taldean %11,8tik gorakoa izanik eta %16,2koa 24-34 urte bitartekoan. Salbuespena, 44 urtetik gorakoan taldean dugu, honetan gizonen langabezia tasa emakumezkoena baino %12,6 handiagoa baita. (6. Grafikoa).

6. Grafikoa. Biztanleria langabetua sexu eta adinaren arabera (%)



4.2.2.2 Langabetuen adina

11. taulan ikusitako datuak aztertuz gero, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

2000ko azken hiruhilabeteen 10 langabetutik 6 gutxi gorabehera, 35 urtetik gorakoak ziren, hau da, %58,99. Hauen artean %34,45, 44 urtetik gorakoak eta %24,46, 35-44

azpimarratu behar dugu langabezia gehien areagotu den adin taldea 25-34 urte bitartekoa izan dela, %2,15eko igoerarekin, bigarrennez, 25 urtetik beherakoak zein 44tik gorakoak datozela %0,72rekin. Hala ere, 35 eta 44 urte bitartekoena, langabeziaren jaitsiera izan duen talde bakarra izan da, %3,63ko beherakadarekin, hain zuzen ere.

11. Taula. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera (%).		
	2000	2001
< 25 urte	10.07	10.76
25-34 urte	30.94	33.09
35-44 urte	24.46	20.84
>44 urte	34.53	35.25
Iturria: Alonsotegiko Udala		

urte bitartekoak izanik. Bestetik, 25-34 urte bitartekoak %30 baino gehixeago dira, azkenik, 25 urtetik beherakoak %10eko taldea osatzen duten bitartean.


Datu hauen aurrean, 2001eko hirugarren hiruhilabetekoak ditugu, bertan, 44 urtetik gorako langabetuen taldea %35,25ekoa da, %33,09, 25-34 urte bitartekoek osatzen dute eta %20,86, 35-44 urte bitarteko langile langabetuek. Azkenik, 25 urtetik beherakoek %10,76ko taldea osatuz.

Arestian aipatu ditugun datuak aurreko urtean jasotakoekin erkatuz gero, lehenengo eta behin

4.2.2.3. Langabetuen ikasketa maila eta gaitasuna

Alonsotegiko langabetuen prestakuntza mailari dagokionez eta 12. taulako datuei erreparatuz, argi ikus daiteke, OHOk ikasketak dituzten gizabanakoen taldeak gora egin duela era nabarmenean, 2000. urtean %28,06 izatetik hurrengo urteko sasoi berean %31,65 izatera. Bestalde, Lanbide Heziketa eta titulazio ertaineko ikasketa taldeetan ere ehunekoaren igoera ikus daiteke, %0,72 eta %1,44ko areagotzearekin hurrenez hurren.

Aipatu beharreko beste xehetasun bat, honako hau da; 2000ko



hirugarren hiruhilabetean eta hurrengo urteko hiruhilabete berean, eskola agiria , BBB-UBI eta goi mailako tituludunen taldeek, %2,16, %2,87 eta %1,43ko beherakada izan dutela, hurrenez hurren.

nabarmendu behar dugu, prestakuntza berezia duen langileria ez ezik prestakuntza berezirik gabekoen taldean ere areagotu dela berau. Gainera, teknikari laguntzaile eta makina gidarien taldeetako portzentajek ere

12. TAULA. Alonsotegiko langabetuen prestakuntza maila		
	2000	2001
Eskola agiria	%46,04	%44,60
OHO	%28,06	%31,65
BBB eta UBI	%8,63	%5,76
Larbide Heziketa	%9,35	%10,07
Titulu ertainak	%0,72	%2,16
Goi tituludunak	%7,19	%5,76
Iturria: INEM		

Bestalde, langabetuen prestakuntzaren arabera, langabezia tasari dagokionez,

gora egin dute, gorakada 0,72koa izanik.

Areagotze hauen ondoan, urritzen diren taldeak ere badaude. Azken bi urteetako datuak hartuta, argi ikus daiteke administrari langile, zerbitzuetakoak, eta nekazaritza zein arrantzan dihardutenen kasuan, beherakadaren neurria %1,43 eta %2,16ko tartean dabilela. (13. Taula)

bere erabileraren azalpenean etxebizitzak eta industriarako egokiagotzat jotzen baita.

- Bigarren sektorea (Industria eta eraikuntza). 317 langile ditu, lanean diharduten % 39,8. Hau udalerriko ekonomiaren ardatza eta oinarria da, industria egoitza

13. Taula. Alonsotegiko langabetuen gaitasuna (%). 2000-2001		
Lan kategoriak	2000	2001
Teknikari eta Zientzia Profesionalak	7.19	7.19
Teknikari eta Laguntza Profesionalak	9.35	10.07
Administrazio langileak	15.11	13.67
Zerbitzuetako langileak	20.14	18.71
Arrantzaa eta nekazaritza langileak	2.88	0.72
Langile gaituak	14.39	15.83
Makina operadoreak	7.19	7.91
Langile ez gaituak	23.74	25.9
Iturria: Alonsotegiko Udala		

4.2.3. Jarduera sektoreak

Lanean diharduen biztanleriaren jarduerakako sailkapenari dagokionez hurrengo hau ondoriozta daiteke:

- Lehen sektorea (nekazaritza eta abeltzaintza). Arlo honek 14 laguni ematen dio lana, lanean ari direnen %1,7. Talde honen garrantzia ez da handia, jarduera honetarako behar diren lursail ezagatik, izan ere, lurra menditsua eta nekeza izateaz gain

edo lantegi gehienak Alonsotegiko Elkartegian bertan dautzala.

- Zerbitzuen sektorea..Honek 466 laguni ematen die zeregina, lanean diharduten %58,5i. Garrantzizko taldea izan arren ez da batere berezia, Bilbotik oso gertu baitago, beraz, herritarren lehen mailako beharrei baino ez die erantzuten.

1991 eta 1996ko datuetan oinarriturik, herriak bizi izan

dituen garapen ekonomikoaren ildo nagusiak ikusi ahal izango ditugu:

Zerbitzuetako sektorea, 1991. eta 1996. urteen bitartean, bietan %48,4ko ehunekoarekin, herrian jarduera sektoretik handiena izan zen arren, garrantzizkoa da esatea, bigarren data honetan, % 10eko igoera izan zuela, guztira %58,5eko ehunekoa lortuz.

Zerbitzuen sektorearen gorakada horretan eragina izan duen herritarren ehunekoa eraikuntza eta industriatik hornitzen da gehien batean, izan ere, talde hauetan 1991tik 1996ra, 1,8 eta 8,6ko beherakada jasan izan zuten, hurrenez hurren.

Joera hau, berdintsu ageri da bai EAEn bai Bizkaian bai Bilbo Metropolitarran ere, bertan, ehunekorik handiena zerbitzuen sektorearen inguruan dabilela, 1991tik 1996ra bitartean %5,4, %5,6

eta %5,7 areagotu baita bere ordezkaritza, hurrenez hurren.

Nekazaritza sektorea, berriz, ehunekorik apalena biltzen duena da, 1996. urtean 1991n baino handixeagoa izanik, hala ere.

Alonsotegiko egitura ekoizlean aipagarria da, industrigintzaren garrantzia, izan ere, EAE osoarekin pareka daiteke eta Bilbo Metropolitarrak duena baino handiagoa da ere. Dena dela, bere nagusitasuna galduz doa zerbitzuen sektorea gorantz doan neurrian, eta, batez ere, 1991tik aurrera, Alonsotegiko desanexioa izan zen urtetik, hain zuzen ere.

Alonsotegiko egitura ekonomikoaren ezaugarria honako hau da; bigarren sektorearen arian-ariako garrantziaren galera, zerbitzuen sektorearen onerako, bere inguru hurbileko udalerrietan gertatzen den bezalaxe. (14. Taula)

14. Taula. Lanean diharduen biztanleriari buruzko datu erkatuak (%)

	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	1991	1996	1991	1996	1991	1996	1991	1996
E.A.E.	2.9	2.5	36.3	31.8	7.5	7	53.3	58.7
Bizkaia	2.3	2	33.8	29.4	8.1	7.2	55.8	61.4
Bilbo Handia	0.5	0.5	31.7	26.9	8.2	7.3	59.6	65.3
Alonsotegi	1.4	1.8	40.7	32.1	9.4	7.6	48.8	58.5

Iturria: EUSTAT

4.2.4. Jarduera eta enplegua

Lanpostua, gaur egun, osagairik garrantzitsuenetariko bat da gizarte eta gizabanakoaren integrazioarako lanabesa bilakatzen den heinean.

Biztanleria aktiboak zuzeneko loturak ditu bai biztanleen egitura demografikoarekin, bai, beronen adinkako osaketarekin, izatez, 16 urtetik gorako gizabanako guztiek osatzen dute berau, eta hauen artean, batetik, zerbitzu eta ondasunak ekoizten aritzen direnak eta bestetik, lanerako prest egonik, lanpostu baten bila ari direnak, hau da, langabetuak.

1996. urtean, 1.220 gizabanakok osatzen zuten Alonsotegiko biztanleria aktiboa,%42ko taldea izanik. Hauetatik, %65,3 lanean ari ziren eta %34,7 langabetuak ziren. Bigarren talde honetatik, langabetuena, hain zuzen ere, %36,7k euren lehen lanpostuaren bila ziharduten, gainontzeko %63,3 eskarmentudunak ziren bitartean.

Datu hauek, 1991. urtekoekin erkatuz gero, esan beharra dago, langile langabetuen kopurua, ordutik hona, %23,2 areagotu dela, lanean dihardutenak, berriz, 1991n %35,1 izatetik, 1996an %65,3 izatera heldu direla, hau da, %30,2ko igoera jasan izanik.

Urte horiexek kontuan izanda, baina Bizkaiko Lurralde Historikoari eta EAERI dagokienez, argi dago, bi kasuetan ere, Alonsotegin bezala, hauek ere

aktiboen ehunekoen jaitsiera jasan izan dutela, hala ere, bi hauetan beherakada handiagoa izan da. Langabetu kopuruari dagokionez oso igoera handia jasan izan da, bai EAEn bai Bizkaian ere, epe berean, aktiboen %13,5 eta %15, 4ren arteko igoera, hain zuzen ere. Hau , gure Udalerriak jasan izandakoa baino gehikuntza txikiagoa da, bertakoa, 1991. eta 1996. urteen artean %23,2koa izan baitzen.

Alonsotegiko biztanleria ez aktiboari dagokionez, udalerriko %57,7k osatzen du, herrian, %15,6ko aldearekin, talde aktiboaren gainetik dagoela.

Ildo honetan, Lurralde Historiko eta EAERen ez aktiboen kopuruari erreparatuta, ondo ikus daiteke, guztiek jasan izan dutela areagotze hori, baina, azken bi hauetan neurri txikiago batean, %7 eta %11 bitartean, hain zuzen ere.

Ondorio orokorra emate aldera, aipa daitekeena honako hau da: Biztanleria aktiboak behera egin arren, langabetuen tasak gora egin duela azken urteotan. (15. Taula)

15. Taula. Lanpetutako biztanleriaren jardueraren arabera datu erkatuak (%).1991-1996

	Aktiboak		Langabetuak		Lanean dihardutenak		Ezaktiboak	
	1991	1996	1991	1996	1991	1996	1991	1996
Alonsotegi	46,6	42,1	11,5	34,7	35,1	65,3	53,4	57,9
Bizkaia	49,8	41,8	10,3	25,7	39,8	74,3	50,2	58,2
E.A.E.	51,1	42,8	9,8	23,3	41,3	76,7	48,9	57,1
Iturria: EUSTAT								

4.2.5 Merkataldegi txikizkari eta handizkarien artean sailkatutako jarduera ekonomikoa

Alonsotegin, herri mailan dauden merkataldegi kopuru osoa kontuan izanik, handizkako merkataritza saltoki gutxien duena da.

Txikizkariak dagokienez, saltoki guztien artean ehunekorik handiena ostalaritza eta garraioari dagokiona da, %47,7 kokatuz, Bizkaikoa baino beheraxeago dagoena, hain zuzen ere.

Bestetik, aipatu beharra dago, udalerrian, industria eta energia esparruan diharduten merkataldegiek %27,1eko multzoa osatzen dutela, herri mailan, bigarren talde nagusia izanik. Bizkaiko Lurralde Historikoan, berriz, %8,3 baino ez direla.

Banka, aseguruak eta enpresentzako zerbitzuen arloa oso ehuneko apalekoa da herriko saltokiei dagokienez, %5,1 baino ez dela, Bizkaian, ostera, %17,3koa izanik eta bigarren talde nagusia osatuz.

Illo honetan, EAEko datuak aztertuz gero, haxe da azpimarratu behar dena; ehunekorik handiena, Bizkaian eta Alonsotegin bezala, merkataritza, ostalaritza eta garraioetan diharduten saltokiena dela % 47,5ekin. Hala eta guztiz ere, Bizkaian bezala, baina, Alonsotegin ez bezala, EAEn, Banka, aseguruak, eta enpresentzako zerbitzuen arloa (%16,7) industria eta energiaren esparruaren gainetik dago (%9,4). (16. Taula)

16. TAULA. Merkataritza-establezimenduak udalerriko, jardueraren arabera (%). 2000

	Alonsotegi	Bizkaia	E.A.E
Industria eta energia	27,1	8,3	9,4
Eraikuntza	11,2	10,6	11,8
Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	47,7	49,5	47,5
Banka, aseguruak eta enpresetarako zerbitzuak	5,1	17,3	16,7
Beste jarduera batzuk	8,9	14,3	14,6

Iturria: Eustat

4.2.6. Ekonomia garapenaren gaineko jarduerak

Alonsotegiko Udalak, herriaren garapen ekonomikoak aurrera egin dezan, zenbait egitasmoren burutzea aurreikusten du.


Aipatu neurri horien artean, nabarmenena, merkataritza eta ostalaritzaren suspertzea da, hau guztia, alor honi zuzendutako informazio aholkularitza eta suspergintza zerbitzua sortuz.

Halaber, enplegua sortzeko bideratuko ekimenei dagokienez, udalak, Aldabide deritzon Herri Garapenerako Agentzia sortu du, horretarako, inguralde izeneko Barakaldoko Herri Garapenerako Agentziaren laguntza eta babesa izan ditu. Honetaz gain formazio eta enplegu arloko lankidetzak konbenioa ere sinatu dute aipatu agentziarekin.

Honetaz guztiaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu Saila, BBK

zein EUDELen bermea duen Alonsotegi-Barakaldo Behargintza-ko kideak gara, Barakaldo Udalerriarekin batera.

Izan ere, ekimen hauen helburua, enplegua sortzen sustatuz, udalerriaren egoera ekonomikoaren hobekuntza lortzea da.




4.3. HIRIGINTZA

4.3.1. Udalerrriaren hirigintza egitura

Ezer baino lehen, kontuan hartu beharrekoa da, udalerriaren hirigintzaren egitura Alonsotegik Bilbo zein Barakaldoko herriekin 50 eta 60 hamarkadetan izan zituen harreman ekonomiko estuetan datzala, bere ezaugarritzat, Bilbo-Balmaseda errepidean zehar

Honelako hirigintza egitura konpontzeko zailtasunak, zutik dirauten eraikuntzak botatzeko dauden oztopoetatik datoz, gehien batean, hortaz, egoeraren hobekuntza, inondik hastekotan, eraikuntza berrietan izan beharko du aukera, gaur egun dauden hirigintzaren plangintzarako oinarriak errespetatuko dituztenak, herritarren bizi maila hobetzen lagun dezaten.



jarritako egoitza industrialak dituela.

Etxebizitzarako eraikuntza gehienak garai horretantxe eraiki ziren, oso modu traketsean gainera, langileen auzuneetako ezaugarri eta itxura guztia zutela. Azken finean, industriaren hazkuntzaren beharrei erantzuteko premia zegoen, nahiz eta horren truke oinarritzko hirigintzaren plangintzarako oinarritzko irizpideak galdu behar izan.

Alonsotegiko lur-zoruaren erabilera eta sailkapenari dagokionez, honako hauek ditugu; hiri lurzoruak, baso landaketak, larre eta soroak eta mendi-basoak. (8.Grafikoa)

- Hiri lurzorua. Honek, Cadagua ibaiaren inguruko gunea betetzen du, industria eta herri gunea kokatzen diren tokian, hain zuzen. Gaur egun, herriaren azaleraren %5 gutxi gora behera izanik.

- Larre eta soroen azalerak, larre, belardi soro eta mendiko larreetako lur sailak ditu barruan, eta %25ekoa da. Landutako lur sailak benetan urriak izateaz gain, ez dira oso adierazgarriak, izan ere, 1999ko nekazal erroldan jaso egiten denez, landutako lurrek 13 ba. baino ez dute betetzen, guztira, 62 ustiapenek osatuta.
 - Mendi-basoak udalerriko azaleraren %36ko hedadura du. Bertan jatorrizko basoen adibide eta aztarna diren harizti, pagadi eta kantabriar artadiez osaturiko zuhaitzietz gain, sastrakaz mahaigaineratzen dugu. Arazo hau zenbait eragilek bultzatuta sortu da, hala nola, jasaten ari garen aldaketa demografikoek eta herriko gazteen emantzipazio egoera konpontzeko beharrak sortu dituen eskarien areagotzea.
2002. urtean, Alonsotegin 1.161 etxebizitza daude, hauetatik 185, hau da %15 hutsik daudela.
- Herrian dauden etxebizitzaren artean %84,5 ohiko etxebizitza nagusitzat erabiltzen dira %0,4 bigarren etxebizitza gisa erabiltzen diren bitartean. (17. Taula)

17. TAULA. Etxebizitza eta familiak mailaren arabera. 1996 (%)				
	Etxebizitza negusia	Bigarren etxebizitza	Hutsik	Taldeak
Alonsotegi	84.50	0.41	15.00	0.10
Bizkaia	83.80	1.00	15.00	0.20
E.A.E	83.10	0.90	15.80	0.20
Iturria: Eustat				

beteriko guneak ere badaude, garai batean ustiapenen bat izandakoak eta gaur egun bertan behera utzita daudenak, alegia.

- Bestalde, baso landaketei dagokionez udalerriaren azalera osoaren %33 osatzen dute.

4.3.2. Etxebizitzaren egoera


Lehenengo eta behin, gaur egungo etxebizitzaren ordezkatzeko beharra

Ikus daitekeenez, udalerrian oso gutxi eraiki da azken 20 urteotan. Alonsotegiko etxebizitzaren %26,8, 1950. urtea baino lehenago eraiki ziren. 1982. eta 1991. urteen bitartean eraiki ziren etxebizitzaren kopurua %2,6 izan zen, honek, ordu-artekeko urteekin alderatuta oso beherakada nabarmena islatu zuelarik.

Bestalde, kontuan izan behar dugu, 1950. urtearen ostean eraiki ziren

etxebizitzak %28, zehatzago esateko, 1961-1979 urteen bitartean eraikitakoak, kalitate ertain baxuko eraikuntzak direla eta herriko etxebizitzak orotara aztertuta, %70,6 direla. Eraikuntza hauek, Alonsotegin ezarritako industriaren eraginez bertakotu zen jendetza eragin zituen beharrei erantzuteko eraiki ziren etxebizitzak dira, hain zuzen ere. Hauen egoerari dagokionez, gainera, oso zaharturik

Alonsotegiko etxebizitzak konfort indizeari dagokionez, honek, apal-apal behera egin duela azpimarratu behar dugu, zehatzago esanda, 1991ko %59tik gaur egungo %56,7ra jaitsi da, horrela EAE, Bizkaia eta Bilboko Metropolitarraren azpitik dago, azken hiru hauetan ehunekoak %63ren inguruan baitabilta guztiak. (9. Grafikoa)



eta gaizki mantendu diren eraikuntzak direla ikus dezakegu.

Konfort indizeari dagokionez, honek sailkatu egiten ditu etxebizitzak zenbait irizpideren arabera, hala nola, dituzten zerbitzuak, neurria eta erabil daitezkeen ekipamenduak, ildo honetan, Eustat-ek emandako definizioari jarraiki, honek familia etxebizitza batek izan eta sor dezakeen erosotasun edo ongizate neurriari eramanen gaitu.

Herriko eraikuntzarik gehienek, %80,1ek, 1 eta 3 solairu artean dituzten eraikuntza baxuak dira eta, gainontzekoak, berriz, %19,9, alegia, 4 eta 9 solairu artekoak dira.

Era berean, Alonsotegiko etxebizitza gehienak 1etik 3ra bitarteko huts-gunedunak dira, %68,5eko ehunekoarekin, euren aurrean, 10 huts-gunedunetik gorakoak, berriz, %15,6 baino ez diren bitartean. Halaber, komun bakarria duten etxeak dira ehunekoetan nagusitzen

direnak % 86tik gora izanik.
(18. Taula)

Herritarren etxeetako neurri edo
espazio erabilgarriari dagokionez,

4.3.3. Alonsotegiko ibilgailu parkea

Alonsotegiko udalerrian, 2002ko
errolak dioenez guztira, motordun
ibilgailu kopuru osoa 1302koa da,

18.Taula. Eraikuntza aruntak solairu eta hutsgune kopuruaren arabera. 2000

	Solairu kopurua			Hutsgune kopurua		
	1etik 3ra	4tik 9ra	10 edo gehiago	1etik 3ra	4tik 9ra	10 edo gehiago
E.A.E	68,2	30,4	1,4	62,4	14,2	23,4
Bizkaia	63,3	35	1,7	58,3	13	28,7
Alonsotegi	80,1	19,9	/	68,5	15,9	15,6

Iturria: Eustat

biztanleriaren ia hiru laurden
neurri ertaineko etxebizitzetan bizi
dira, hau da, 60tik 99ra bitarteko
azalera dutenak, hain zuzen.

Etxebizitzen gehiengo batek (%93,4)
ur beroa du baina, Bizkaian eta
EAEko portzentajearen azpitik,
(%97), bestalde, telefonoa duten
etxebizitzek %89,5eko taldea osatzen
dute, Bizkaiko emaitzaren %17
baino apalagoa. (19. Taula)

2,06 biztanle bakoitzeko auto bat
dagoela islatzen duena. Datu hau
oso adierazgarria da, izan ere,
kopuru altua baita.

Ibilgailuen taxutzea honako hau da;
batetik, 1192 turismo, bertan, bai
motorrak bai autoak sartzen direla
eta bestetik 110 ibilgailu astunek
(kamioi, garabi, eskabadorak etab...) osatzen dutenak. Ibilgailu astunek,
orokorrean dauden ibilgailuen
%18ko multzoa osatzen dute, beraz,
gainontzeko ehunekoa,
norbanakoen autoz osatzen dena,

19. TAULA. Alonsotegiko etxebizitzaren zerbitzu eta instalazioak (%). 1996

	Ur beroa etxean	Komuna	Telefonia
E.A.E	%97,20	%99,00	%90,90
Bizkaia	%96,60	%99,00	%91,20
Alonsotegi	%94,30	%97,30	%89,50

Iturria: Eustat

oso ugaria da eta aparkalekuen azpiegitura ezarekin batera, herri gunean aparkatzeko tokien premia larria azaleratzen du.

Alonsotegin, eraikuntzek ez dute lur azpiko aparkalekurik, beraz, gaur egun herriak duen aparkalekuen eskariei erantzuteko neurriak hartu beharko lirateke. Era berean, gaur egungo arazoez gain, epe ertainera begira, bai motordun ibilgailuen areagotzeak bai egiten ari diren eraikuntza berrien ondorioz espero den biztanleriaren handitzeak eraginda sor litezkeen eskariak ere kontuan hartu beharko lirateke aipatu neurriak hartzeko orduan.

4.3.4. Hirigintza proiektuak

Alonsotegin abian da Hirigintza Suspertze Egitarau bat, eta bertan, herria ukitzen duten hirigintza arazoei, modu orokorrean, aurre egiteko jarduketa sorta bat biltzen da. Aipatu jarduketa hauek, irisgarritasun, urbanizazio eta ekipamenduen horniduraren hobekuntzarako proiektuak hartzen dituzte barnean.

• *Irisgarritasuna*

- ❑ Ildo honetan eta herrian aurkeztu diren irisgarritasunaren hobekuntzen artean, Cadagua ibaiaren bi ibarrak lotuko dituen zubi berriaren eraikuntza dugu. Ibaiak, bi gune isolatutan banatzen du herria, hauen lotura gaur egun, bi zubi dira, bata udalerraren sarreran eta bestea herri gunean bertan dagoena.

Azken honen errepidea estua izateaz gain, oso aldapatsua da eta gainera, bere ibar ezkerrean urak gainezka egiteko arriskua du.

- ❑ Horregatik, esker eskuin aldeetako herritarren arteko lotura eza zein honek eragiten dituen zirkulazio eta komunikazio arazoak konpontzeko aldera, behar beharrezkoa ikusten da bi aldeen arteko lotura gune berri baten eraikuntza. Halaber, Ularki auzorantz bi norabideetan, zein C-6318 eta eskuin ibarreko errepide berrirantz doan trafikoaren banaketa egokia lortzeko bi errotonda egingo dira.

- ❑ Irisgarritasunaren hobekuntzari begira aurkeztu den beste neurrietako bat San Antolingo errepide berriarena da.

Pertxetako zubia eta zubi-zaharraren arteko bide ordenamendua antzinako FEVE trenbidea erabiliko lukeen errepide berri baten bitartez egin behar da, honek, norabide bakarreko ingurabidea osatuko luke, Pertxetatik sarrera eta irteera izango luke eta zubi-zaharretik irteera baino ez luke izango.

Neurri honen helburuak gurpilezko trafikoa antolatzeaz gain FEVE trenbide zaharra, kale eta bide berritzat berreskuratzea da, eta era berean, etorkizunari begira, hirigintzaren garapenari lagunduko dion errepideen egokitzea litzateke.

□ Beste ekimenetako bat, Areitzo-Erdikon errepide berri baten eraikuntza dugu. Gaur egun, kaleen estutasunak, hiri antolaketak eta aparkalekuen beharrak ibilgailuen zein oinezkoentzako arazo larriak sortzen dituzte. Hori dela-eta, behar beharrezkoa dugu errepideen zabalkuntza eta noranzko zein norabideen berregituraketa. Neurri honen helburu nagusiak trafikoaren ordenamendua eta aparkaleku berrien eraikuntza dira.

• Hirigintza

□ Bigarrenenez, udalerrian hirigintza hobetze aldera, lehen neurri bezala Lasao kaleko 17 eta 19 zenbakiez gain, Madinabeitia Doktore kaleko 3a bertan behera botatzea erabaki da, izan ere, ordenamendutik kanpora egoteaz gain urteen joan-etorriak guztiz hondatuta zeuden eta. Hau guztia, Alonsotegiko herri-gunea berregokitzeko egitasmoa aurrera eramateko helburuarekin, honek, Udaletxearen ondoan Herriko Plazaren eraikuntza ahalbideratuko lukeela. Egunotan, gainera, udal etxebizitza batzuk eraberritzen dihardute lehen aipaturiko etxeetako jabeak bertan bizi daitezen.

□ Era berean, hirigintza helburuen artean aurkeztu den beste egitasmo bat La Barranca auzoko urbanizazioaren hobekuntzarena da, honako honetan datzana:

- Sarbideen egoeraren hobekuntza, bai oinezkoentzat, bai ibilgailuentzat.
- Auzotik herri-gunerako sarbideak hobetzea.
- Euri-uraren ihesbide sarearen burutzea.
- Herri argien hobekuntza eta...
- Indar elektrikoaren sare hornitzailearen lurperatzea.

Neurri hauen guztien xedea, hirigintzari dagokionez, auzoaren birgaitzea da, zorua, zerbitzuak eta sarbideak hobetuz.

• Ekipamenduak

□ Hirugarrenez, herriko ekipamenduen hobekuntzarako ekimenen artean, Lasao kaleko antzinako eskolak herriko kultur egoitza bihurtzeko egingo den eraberritzea azpimarratu behar dugu. Honek era horretako azpiegituren gabezia ase egingo luke, besteak beste, biltzeko toki, erakusketa zein hitzaldi areto, zine, antzerkia...hauek guztiak burutzeko aukera emango luke, behar beharrezkoa izanik, gainera.


□ Era berean, El Somo auzoan dagoen eraikuntza bat eraberritzeko asmoa ere badago, gerora begira, gazte aterpetxe bezala erabilia izan dadin. Aipatu azpiegitura hau aisialdi eta ingurugiroaren heziketarako prestatuko litzateke.

Aipatu ditugun ekimen hauen guztien atzean dagoen erakundea

Alonsotegiko Udala da, honek,
udalerrriaren egoeraren hobekuntza
dauka xedetzat, antzinako
eraikuntzak birgaitu eta
eraberrituz, herrira iristeko zein
herri barruan ibiltzeko
irisgarritasuna hobetuz eta herria
kultur arloko oinarrizko
azpiegituz hornituz.

Egitasmo hauek guztiek, beraz,
herritarren bizi kalitatea hobetzeaz
gain, herrira datozen bisitarien
kopurua areagotzea dute
helburutzat, bide batez, turismo eta
kulturgintzari lotutako ekonomia
arloa ere hobe dadin.





4.4. BIZI KALITATEA

"Bizi kalitate" esamoldea osagai anitzez osatzen da, hala nola, kultura eta aisialdirako eskaintza, osasun zerbitzu eta azpiegiturak, udalerriko herritarrentzat bideratzen diren zerbitzu eta dirulaguntzen maila ona, ingurugiroaren babestea, etab.

Izan ere, udalerri bateko azterketa sozio ekonomikoaren barruan, oso garrantzizko osagaia dugu hau, herritarrek eurek, irizpide horri eskaintzen dioten arduragatik eta hirien elkar lehia zein erakargarritasunean irabazten ari den arretagatik.

4.4.1. Kultura eta Aisialdia

Alonsotegiko Udalerria, nahiz eta kultura era aisialdirako azpiegiturretan eskas dabilen, kultura eta kirol ekitaldi ugari antolatzen ditu.,

Ildo honetan, udalak, Kultura, Hizkuntza Normalizazio, gazteria eta kirolak deritzon Arloa dauka eta honek gai ugariren inguruko ekintzak eskaintzen ditu, hala nola, elkarte errolda, euskararen sustapena, kulturarako dirulaguntzak, kirol gaiak, gazteria, aterpeak, jaialdi eta era askotako ekimen soziokulturalak. Era berean, udalak urtero burutzen diren jarduera anitzak antolatzen ditu, abesbatzen ekitaldiak, baserriko nekazari zein abeltzainen produktuen erakusketak, txirrindularitza lasterketak, feriak,

sukaldaritza lehiaketak, besteak beste..

- Kirol arloan, herri txikia bada ere, Alonsotegik bi futbol zelai ez ezik bi pilotaleku ere baditu eta herritarren eskariei erantzute aldera igerilekuen eraikuntza ere bidean dago.

Halaber, kirolari lotutako ekimenen artean, Bizkaiko VIII. itzuliko etapa bat antolatuko da, izan ere, erlojupeko etapetako bat herrian zehar igaroko da. Honetaz gain, irailaren hasieran, San Antolin jaiak direla eta antolatzen den txirrindularitza lasterketa ere gehitu behar dugu.

Aurten, gure herrian abiatuko den beste kirol egitasmo bat, Bilbon entzute handia duen "Herri Krosa" deritzon oinezko lasterketaren gauzatzea izango da.

Era berean, herrian bost kirol elkarte ditugu, hala nola, Gorriak, C.D. Larramendi, Elizalde Pilota Elkartea, Goiko Mendi eta C.D. Arbuio. Hauek guztiak, futbola, pilota zein mendiari lotuta dauden elkarteak dira.

- Kultur arloko ekimenei dagokienez, honako hauen artean sailkatu beharko genituzke; batetik ikastegiak, bestetik, kultura-elkarteak eta azkenik, kultura ekitaldiak.

Kultura azpiegituren esparruari

begira, Alonsotegik Helduen Hezkuntzarako ikastetxea du (HHE), bertan, ikasgai ugari jaso daitezke goizeko zein arratsaldeko ordutegian, eskola nahi duten erabiltzaile guztiei egokitzeko asmotan.

Bestetik, erabilera anitzak dituen liburutegia ere badago herrian. Honako hauek izaten dira bertan burututakoak: Datu kontsulta, ikasteko gela, hitzaldi aretoa..., nahiz eta herritarrek ikasteko gelarako baino erabiliko ez den toki bat eskatzen duten, izan ere, era honetako azpiegituren falta baitute benetan.

Herrian, kulturaren garapenerako erabiltzen den beste azpiegiturretako bat, eskola zaharren egoitza da, non Gazteleku izeneko elkarteak kokatzen den. Hau, 10 eta 15 urte bitarteko gazteen topa-gunea da, bertan, teilatupeko jarduera ugari dituzte, hala nola, mahai-jokoak, ping-ponga eta mahai-futbola besteak beste, eta eguraldiak lagunduta, irteerak eta ingurua ezagutu ahal izateko txangoak izaten dituzte. Honetaz gain, antzinako eskola honetako ikasgeletan, adin guztietarako musika-eskolak ematen dira, piano, gitarra, zein musika-hastapen taldeetan.

Bestalde, urteak dira Maisuen Plazako zenbait ikasgela ikastetxeko gimnasioarekin barera kirol eta mantentzeko gimnasia ikastaroak emateko

erabiltzen direla. Honetaz gain, nahi duen herritar ororentzako aerobic eskolak ere ematen dira, are gehiago, areto-dantza talde bat ari da ere, arratsaldez ematen dituzte ikastaroak, hauek, herritar guztiei begira antolatzen diren arren, herriko nagusienak izaten dira maizenik jarduten dutenak.

Margogintza taldea ere bada herrian. Hauek ere Maisuen Plazako ikasgeletan ematen dituzte eskolak eta adin guztiei begira antolatuta daude, gainera.

Aipatu ditugun ikastaro hauek guztiek, udalaren dirulaguntza izan dute, Alonsotegiko Udalerriko herritar ororen kultur garapenari laguntzeko bidean.

Era berean, herriko jubilatuentzat bi nagusi-etxe ditugu, bat Alonsotegikoa, San Antolin plazako 4.ean kokatuta dagoena eta bigarrena, Arbuiokoa, Giako Amaren kalean datzana, biak dagozkien instalazioez hornitutakoak.

Aipagarria da, udalerrian dauden kultur elkarte kopuru handia, batez ere, herritar kopurua kontuan izanik. Alonsotegin, kulturari lotutako zazpi elkarte ditugu, Herrikoak, Argitasuna KT, Aritzmendi Elkarte, Herri Otxomilak, Irasagarrrak Kultur Taldea, Txirri-txirri Kultur Taldea, eta Zutik Mintza taldea, hauek guztiek, nork bere izariari loturiko jardueren antolaketari

ekiten diote, era berean, herrian eratzen diren jai eta ekitaldien antolakuntzan ere laguntzen dutela.

Alonsotegiar gazteen kultur garapena sustatzeko bitarteko modura, udalak azken urteotan atzerriko beste herri batzuekin kultura-trukeak antolatzen jardun du, hala nola, Hungaria, Eslovakia, eta Irlandarekin. Honetan, 16-25 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiek parte hartzen dute.

- Bestalde, aipatzekoa da norainoko ahalegina eta ardura datorren udalaren eskutik, herritarren arteko euskararen zabalkuntza zein hedadurarekin zer ikusia duen guztiarekin.

Helburu honekin, 2001. urtean egitasmo bat jarri da abian. Urte honetan zehar jaio edo jaioko diren haur guztiei, euskal sehaska-kantak dituen CD bana oparituko zaie, horretaz gain, euskaraz honako hau dioen esaldia idatzita duen baberoa: "Alonsotegiko Udala. Euskara zerbitzua. Niri euskaraz".

Udalak bere ardura pekoa ez den Euskaltegiari diru laguntza ematen dio. Honek, Areitzo kaleko 5.ean du bere egoitza eta, bertan, talde txikietan ematen dira euskara eskolak.

Euskara, bizirik dagoen hizkuntza izan dadin eta ikasgelatik kanpo aterata, umeen gainontzeko inguru etara hel

dadin, Udalak ekimen berriak laguntzen ditu diruz, hala nola, jolas orduetan eskolara joaten diren euskara begiraleak edo, uztailean zehar 6 eta 14 urte bitarteko umeentzat antolatzen diren udalekuak, bertan, beste ume batzuekin egiten dituzte irteerak euskara lantzeko jarduerak burutuz.

Amaitzeko, herrian ditugun aisia-aldi eta atsedenaldirako guneei dagokionez, gogoratu beharra dago, industria tradizioa gorabehera Alonsotegik berdegune ugari dituela, hala nola, Pagasarri eta Ganekogorta mendiak.

Udalerriak duen berezko aktibo honi etekina ateratzeko aldera, honako hau aurreikusitako da:

- Ibilbide berriak sortu, ingurumen-heziketari begirako azpiegitura sortu eta garatzeko asmotan.
- Udal parke berri bat, berde gune gehiagoz hornitzeko eta bestetik, bide zaharren eraberritzea, bidezidorretako ibilbideak sortzeko.
- Ingurugiroa eta, batez ere, gure jatorrizko landare espezieak hobeto ezagutzeko, baso didaktiko bat sortzea.
- Udalerriko eremu naturalen antolamendua, beraien erabilera ezberdinak, bateragarriak izan daitezen, hala nola, atsedena,

giro didaktikoa eta ingurumenaren babesa.

- Honetaz gain, Zamundi mendiko Santa Quiterian atsedeen-leku betan eraikuntza. Bertan, natur giroan egin daitezkeen aisi jarduerak burutuko lirateke, baita ingurumen-hezkuntzari lotutakoak ere, izan ere, kantabriar artadiaren ekosistema enblematikoan kokatuta dago eta.

4.4.2. Osasun azpiegitura eta zerbitzuak

Alonsotegiko Udalerriak herritarren osasuna jagoteko osasun zentro edo ambulatorio bat baino ez dauka. Aipatu zentroak errota kaleko 1-3 zenbakietan du egoitza. Bertan, kudeaketa hitzordua aurretiaz eskatuz burutzen da eta osasun orokorreko laguntza ematen da, berezitasunetarako herritarrak beste udalerri batzuetara joan behar izaten dutelarik. Lehenengo eta behin, orokorrean, herritarrak ambulatorioak eskaintzen dituen zerbitzuekin gustura daudela esan daiteke. Dena dela, itxarote zerrendak eta zain egoteko epeari dagokionez zenbaitek euren kexua adierazi dutenez, arazo hauek konpontze aldera, Udalak, Alonsotegiko Udalerria Bilboko osasun maparen barruan sartzea bideratu du.

Herrian, gainera, osasun arloko profesional herrikideen laguntza ordainezina dugu, larrialdi baten

aurrean Udalaren zerbitzupean aritzeko prest egoten direnak. Horretaz gain, udalerrian, masajista-terapeuta bat ez ezik Hortz-klinika bat ere badago, bigarren bat irekitzear dagoela.

4.4.3. Gizarte ekintza

Gaur egungo gizartean, arrazoi anitz direla-eta gizarte laguntzen premia duten gizabanakoen kopurua areagotuz doa. Ezintasunak direla, pobrezia dela sor litezkeen gizarte baztertzekak konpontze aldera, egoera honi dagokionez, Alonsotegik udal gizarte laguntzaileak ditu lanean, aipatu egoerek eragiten dituzten arazoetan laguntzeko.

Laguntza zentroak Dr. Madinabeitia plazako 1. zenbakian du egoitza, Udaletxean bertan, eta Oinarrizko Unitatea izenez ezaguna da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, honako betekizun hauek dituzte, besteak beste; inguruan bizi diren herritarren arazoei arreta eskaintzea, herritargoaren garapena, bizi kalitatearen hobekuntza, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eginiko eskarien bideratzea eta laguntza mota ezberdinen prestazioa.

Arestian aipatutakoek herritarren gizarte zerbitzuetara hurbiltzeko lehen urratsa osatzen dute, horretarako, lehenengo eta behin, interesatua bere Udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo

beharko du informazioa lortu eta dagokion laguntza motarako eskaria aurkezteko.

Alonsotegin, zerbitzu honen ordutegia honako hau da: astearte eta ostegunetan 9etatik 13etara, hitzordua aurretiaz eskatu behar izanik, bertan taldea osatzen dutenak gizarte langilea, familia hezitzailea, adingabekoen hezitzailea eta gizarteratze teknikari bat direlarik.

Euren zeregina udalerrian, honako arlo hauei arreta eskaintzean datza:

- Haurtzaro, gazteria, emakume eta familia.
- Ezinduen zerbitzua.
- Hirugarren adinekoentzako arreta zerbitzua, arreta berezia eta oinarrizko arreta berezia.
- Arreta bereziko saila.
- Pobreziaren aurkako borrokarako plan integrala.
- Hirugarren adinekoentzako suspertzaileak
- Emakumearen promoziorako zentroa.

Oinarrizko zerbitzu honetara 500 herritarrek jotzen dute maiztasunez, oso portzentaia txiki batek, berriz, oso egoera berezietan jotzen duen bitartean.

Oinarrizko zerbitzu honetarako eskaririk gehien duten auzoak Arbuio eta La Guia izaten dira.

Bestalde, azpimarratu behar da, pobreziaren aurkako borrokarako plan integrala abian jarri zenetik,

arlo honetako esku-hartze politikek igoera ikusgarria izan dutela, hala lagundutako familiei dagokienez nola helburu honetarako erabakitako aurrekontuei dagokienez. Izan ere, 1989 eta 1995 artean, EAEn laguntza jaso duten etxe kopurua hirukoiztu egin da, 1989. urtean 3.310 izatetik 1996. urtean 9.908 izateraino. Era berean laguntza mota honi egokitutako diru kopurua ere 10 aldiz handiagoa da, 1989. urtean 406 izatetik 1995ean 4.084 izatera.

Gizarte laguntzarako bi neurgailurik garrantzizkoenak, honako hauek dira: profesioarteko gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera (GGD) eta gizarte larrialdietarako (GLL) diru laguntza.

GGD eratako laguntzak, bizirik irauteko oinarrizko gastuak egiteko behar besteko baliabiderik ez dutenen beharrak asetzeko helburua duten prestazio ekonomikoak dira. Hauek, luzatu egingo dira, batetik, eskaria sortu zuten arazoek irauten duten bitartean eta, bestetik, titularrek aurreikusitako betebeharrak betetzen diren bitartean.

Aurrekontuei dagozkien beste zenbait zehetasun alde batera utzita, hala, laguntzen kopurua, nola, helburu horretarako egokitutako diruaren bilakaera oso lotuta dago udalerrriaren bilakaerarekin, herritarren bizi baldintzen hobekuntza/okertzeari dagokionez..

Alonsotegiko Udalerriko GGDri dagokionez, ikus daiteke azkeneko hiru urteotan ez dela ia alderik egon zerbitzu hau eskatu eta eman egin zaien kopuruari dagokionez. Gutxi gorabeherako eskatzaile kopurua 25 familiakoa izanik, hau da, 65 kide kontagarri inguru.

Bestetik, Gizarte larrialdirako diru laguntzak jasoko dituenak honakoak dira: ohiko zein ohikoak ez diren gastu berezi batzuei aurre egiteko behar besteko baliabiderik ez dituztenak. Finean, diru laguntza hauek puntualak izaten dira eta behargorritzakoak diren gastuei aurre egiteko balio izaten dute, sarri askotan bestelako laguntzaren baten osagarriak izan daitezkeenak.

Alonsotegin, gehien batean, familia era eta kopuru bera izaten da GGD zein GLL jasotzen dituztenak

Laguntza hauek, familia hauei ematen zaizkie, eskatutako diru ezaugarriak kontuan harturik eta bakar bakarrik ezarritako baldintzak beteko balituzte.

4.4.4. Ingurugiroa

Ildo honetan, dauden aldapa gogorrek, lurzorua erabilera okerra, kontrolik gabeko abeltzaintza eta nekazaritza arazoek, egokiak ez diren espezien landaketek, bertan behera utzitako meategiek eta abarrek udalerriko zenbait gunetan erosio arazo larriak sortu dituzte. Honetaz guztiaz gain, gailurretan sortzen diren errekaak herrigunean bertan

dagoen Cadagua ibaira isurtzen direnez, uholde zein lurjausi arrisku handia sortarazten da.

Cadagua ibaiaren urak ez dira ez edateko ez komuneko ur horniketarako gai, eta euren kutsadura mailak neurri batean arrainen bizitza ere oztopatzen du. Hondatze honen arrazoi nagusia, industriak eragindako isuriak izan dira. hala eta guztiz ere, kutsadura eragiten duten hiri-isuriak ere garrantzizkoak izan dira.

Dena dela, azken urteotan Cadagua ibaiaren uren kalitatearen hobekuntza apala nabarmendu behar da, eta horren seinalerako, bertan dagoen ur-bizitza da. Egoera honetara heltzeko honako eragile hauek izan dira bitarteko: ibaira isurtzen duten industrietan jarritako arazketa instalazioak, Guenesko ur-araztegia eta azkenik kontrolik gabeko isuri eza.

Fauna eta landarediari dagokienez, Alonsotegin sastraka eta belarkia nagusitzen dira. Ikus daitezkeen zuhaiztiak, harizti, baso nahasi eta kantabriar artadiko landarediez gain, kanpotik ekarritako makala, akazia eta alboz osatzen dira.

Baso birlandaketek ere berebiziko garrantzia dute larre eta landaketekin batera.

Era berean, arian-arian desagertzen doazen abeltzaintza eta nekazaritzak, zenbait sasitza-gune, sastraka eta hosto zabaldun baso nahasiaren bilakaera bideratu du.

Egoera honen aurrean, udaletik epe ertainera eta epe luzera begirako ingurumen-politika bat ezartzeko beharra ikusi zen, politika honek hirigintza, ingurumen eta sozio-ekonomiari dagozkion esparruak batuko lituzke. Gainera, Alonsotegiko herritarren Zabalgarbiko hondakin solidoen kudeaketarako plantarekiko sentsibilizazio maila kontuan harturik Udalak iritzi zion, ingurumen-politikaren ardatzak honako bi hauek zirela, batetik, etxeko hondakinen bilketa zerbitzuak eta bestetik, auzokoen hezkuntza eta kontzientzia maila ingurumenari dagozkion arazoetan.

1999. urtean, biztanle ugari bizi diren udalerriko zenbait gunetan, erruz batzen ziren etxeko hondakinak, oso irudi kaltegarria islatuz. Hori dela eta, hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzua hobetzeko ahalegina egon da eta udala, herritarrak udalerriko ingurumenaz kontzientziarazten saiatu da, horretarako, abiatzeaz zegoen egitasmoari buruzko azalpenak zituen propagandaz baliatu da.

Horretarako udalerrian zeuden

edukinontziak lur azpiko beste batzuen ordeztatu ziren eta hauekin batera, zama alde batetik sartzen zaien horietakoak ere jarri ziren, izan ere, hauen neurriak handiagoak dira eta itxita egon ohi dira beti, kiratsik jario ez dadin eta animaliarik bertara ez dadin.


Gainera, udalerrian, dendariantzako enbalajeen bilketa berezi bat antolatu zen, astean hiru egunez, edukinontziek gainezka egin ez zezaten.

Honekin guztiarekin, herriko kaleetako edukinontzi kopurua murriztea lortu da eta honekin batera, metatzeko gaitasunaren areagotzea ere. Gainera, lurpeko edukinontziekin oztopo handi bat kendu da herriko kaleetatik, beraz, honek guztiak, udalerriaren estetikan ez ezik hiri kalitatearen hobekuntzan ere eragina izan du.

Edukinontzi berrien ezarpena eta informatzeko foiletoen buzoiratzeak zabor nahasi kopurua urritu eta sailkatutako zaborraren bilketa areagotzea bideratu du eta, horren ondorioz, birzikla daitezkeen hondakin kopurua ere areagotu da.

20. TAULA: Bilketa mota

BILKETA	1999	2000	2001
Organikoa	%87,63	%85,42	%83,36
Sailkatutakoa	%12,37	%14,58	%16,64
Iturria : Alonsotegiko Udala			



10. grafikoan ikus daitekeenez, zabor organikoaren bilketaren ehunekoa, beheraka joan da arian-arian sailkatutako zabor bilketa mota goraka doan bitartean. Honek argi adierazten digu herritarrak ondo jabetuta daudela batetik, ingurugiroaren hobekuntzaz eta bestetik, birziklatzeren esanahiaz.

Zabor organikoaren bilketa, 1999. urtean jaso ziren %87,63tik, 2001ean jasotako %83,36ra igo da, sailkatutako zaborra, berriz, %4,27ko igoera izan du epe berean, hau da, 1999tik 2001era bitartean.

Bizkaian ekoitzi ziren hondakinak guztira 984.173 tona izan ziren 1999. urtean, 2000. urtean, berriz, 1.069.660 tona izan ziren eta 2001ean 1.096.433 tona. 1997 urtean pertsona eta urteko 262 tona etxeko hondakin sortu ziren bitartean, 2001 urtean, aldiz, 400 izan ziren.

Bizkaiko birziklatzeari dagokionez,

1997. urtean, urteko eta biztanleko 33 kilo birziklatu ziren, 2001. urtean 72,67ra iritsiz.

Era berean, iaz, Bizkaiko Lurralde Historikoan, etxeko zaborretako %18 birziklatu zen eta industria zein merkataritzako hondakinen %58.

Ondo azpimarratzekoa da, bestalde, Alonsotegiko Udalak, dihardugun alkatetza honen hasieran izan zuen ekimena, bertan, garapen jasangarrirako herri mailako estrategia baten alde egiten duela. Hau guztia, Agenda 21 deritzon prozesuaren markopean.

Prozesu hau, ingurugiroaren arazoak antzemateko herritarren partaidetza eta adostasunean datza. Horrela, giza ingurumen zein ekonomikoaren garapenaren arteko desoreka konpontzeko neurriak hartzeko aukera ematen du. Prozesua abian jartzeko honako urrats hauek eman dira:

Ezer baino lehenago, 2000ko urtarriletik apirilera bitartean, udalerriko ingurumen-kalitatearen auditoretza bat egin zen. Hau, urte bereko ekainean, udalaren osoko bilkuran aurkeztu zen. Aipatu osoko bilkura horretan, garrantzi handiko beste erabaki bat hartu zen; Aalborg-eko itunaren sinaduraren bitartez Europako hiri jasangarrien kanpainari atxikitzea, alegia, urrats hau prozesu osoaren mugarririk handiena izanik (2000ko ekainean). Dokumentu honetan, konpromiso bat jasotzen da; Alonsotegiko herriak, garapen jasangarriaren helburuetara ahalik eta gehien hurbiltzen den herriaren eraikuntzan aurrera pausuak emateko konpromisoa, hain zuzen ere. Bestela esanda, ingurumena zein beste erkidego batzuk kaltetu gabe, hiritarren bizi kalitate hobea eragiten duten helburuetarantz jo behar baitugu.

Urtarrilean, jasangarritasunaren aldeko foroa -zen eraketarekin urrats berri bat eman zen. Ingurumen-foroa ere deritzon honetan, teknikarien diagnostikoari herritarren iritsia eta jardueren lehentasunen hurrenkera ere gaineratzen zaizkio. Foro honek, izari kontsultiboa dauka, eta bertan, partaideek, teknikari eta adituen laguntzaz, gaiak jorratzen dituzte, baita helburu eta lehentasunak finkatu ere. Honetaz gain, herrian hurrengo urteetan burutuko diren ingurumen-politikaren ildo nagusiak ezartzeko balio duten egitarau eta planak ere ezartzen dituzte.

Prozesuaren funtsezko urrats bat, bere jarraipena aurrera eramatea da. Gauzak horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako jarraibideen arabera europar irizpideekin batera, Alonsotegiko ingurumen-egoeraren bilakaeraren azterbide izango diren adierazleak aukeratu ziren.

Ingurumen informazio batzordeak, Alonsotegiko Udaleko teknikariekin batera, proposamen horiek osatu eta aurretiaz ezarritako planei zein arduralaritzaren honen jardunbidearen izateari egokitu zaizkio.

Horrela, Alonsotegiko Udalaren ingurumen-ekintza plana, honako era honetan egituratu da:

I. Ingurumen Adierazle Sistema: gaur egungo egoera (2002ko martxoan): Gaur egun ditugun datuek, ingurumen-egoeraren isla ematen digute..

II. Hobekuntza egitaraua, 10 hobekuntzarako egitarau aurkeztu dira, non premiazko jardueren ildoei begirako helburu sorta bat ezarri den.:

1. ibaia eta erreken kutsadura hobetzeko egitaraua.
2. herri hondakinen murrizketa eta birziklatzeko egitaraua.
3. airearen kalitatea hobetzeko egitaraua.
4. lurzorua kalitatearen ikertzeko egitaraua.
5. lurralde antolamendu egitaraua
6. arrisku eta larrialdi egitaraua.
7. heziketa egitaraua.
8. ongizatearen hobekuntza egitaraua.


9. udal kudeaketaren hobekuntzarako egitaraua.
10. hiritarren partaidetza areagotzeko egitaraua.

III. Ekintzak: Ezarritako helburuak lortzeko bidean burutu beharreko 56 ekintzen azalpena.

Ondo azpimarratu behar da, Alonsotegiko Udalerrian eratu den esperientzia berrigarri honek, hiritarren partehartzea eragiten duela udalerriaren plangintzaren prozesuan garapen jasangarriaren aldeko Foroak Udal Jarduerarako proposamen zehatzak eta hitzartuak sortzen dituen heinean. Era berean, ondo azpimarratu beharra dago, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, oso gutxi izan direla prozesu hau, osorik, burutzeraz heldu diren udalerriak.

Foro honen garrantzia ingurumen esparru hutsa baino haratago doa, Izan ere, harreman zuzena, etengabekoa eta bi norabideko mekanismoa ezarri baititu gizarte eta Udalaren artean. Batetik, Udala herritarren kezkez zuzenean jabetu ahal izan da, Foro horretako kideak, gizarte esparru guztietako ordezkariak direlako, eta bestetik, partaideek zuzen zuzenean ikusi ahal izan dutelako nolako zailtasunak eduki ditzakeen Alonsotegiko Udalak bai eguneroko arazoei aurre egiteko, bai eguneroko kudeaketa burutu eta etorkizunaren plangintza egiteko.





Gako Estrategikoak

Alonsotegiko etorkizunerako ikuskizuna honako azalpen honekin labur daiteke: natura aktiboak erakargarri bihurtzeko erronka duen udalerri bat. Horretarako, bere garapen ekonomikoa landa turismo jomugatzat indartuz, herritarren bizi kalitatea sendotu eta areagotze aldera, era berean, dituen hirigintza zein industria jarduerekin elkarlotuz eta gazteen arteko formazioa, bai eskolako bai balioetakoa piztuz, haxe baita benetan herriaren etorkizunerako oinarritzko baliabidea.

Helburu hauek lortzeko bidean, etorkizuneko ikuskizun hori ikusi ahal izateko, beharrezkoak diren gako estrategiko batzuk azaldu dira, ondorengo lerrootan zehaztuko ditugunak, alegia:

- Garapen jasangarri eta zerbitzu enpresak: Zerbitzu enpresak herrira erakarri eta bertan eustea da helburua, hauek, udalerriari lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa ekartzeaz gain, Alonsotegin balio handiko aktiboa den ingurumenari begirune handia izango diote
- Landa turismoa: Nekazal turismoa, herrian bizi direnak eta bisitan datozenen artean udalerriaren irudia hedatu eta berri emateko bitartekoa izateaz gain, herriarentzako erakargarria izango da eta baita ekonomia garapenaren eragilea ere.
- Giza baliabideak, formazioa eta balioak: Giza baliabideak,

formazioa eta balioak, oinarritzko osagaiak izango dira, egokitze gaitasuna izateaz gain, era globalean lehian arituko den udalerriaren etorkizunaren eraikuntzan.

- Bizi kalitatea: Hiritarren bizi kalitatea bermatuko duen inguru baten lorpena indartu, aberastasuna eta eusten den hazkuntza sortuz, hau guztia, gizarte sektore guztientzako, modu integratzailean inolako bazterkeriarik gabe.
- Barne komunikazioaren hobekuntza eta gizarte integrazioa: barne higikortasun sistema bat garatu, herriaren zatiketa ekidite aldera udalerria osatzen duten auzuneen arteko lotura ziurtatuko lukeena, eta bai gizarte kohesioa bai herrikide sentimendua indartuko dituen.

Gako hauen helburua, udalerrian honako lau faktore hauen arteko oreka lortzean datza; bizi kalitatea, garapen ekonomikoa, hirigintza, eta formazioa. Honela, Alonsotegi, aberastasuna beraiekin ekarri zein sortzeko gaitasuna duten pertsonak eta enpresak erakarriko dituen herria bihur dadin.



5.1. ZERBITZU ENPRESAK ERAKARRI ETA EUTSI. GARAPEN JASANGARRIA

Ekoizpenaren aniztasunaren oinarritzko ardatzetako bat eta enpleguaren sorkuntzaren ildotik garrantzizkoena, zerbitzuen sektorearen garapena da, honetaz ari garenean, ezaugarri bereziak dituzten sektore mota ezberdinetan biltzen diren jarduera multzoaz ari gara: Hauen artean, ohikoak diren ostalaritza zein merkataritza; gizarte zerbitzuak, hala nola, osasuna, hezkuntza eta gizarte laguntza eta industriaren lehiakortasunari estu-estu lotutako zerbitzuak.

Alonsotegi, betidanik izan da industrial hutsa, bertan, lanerako esku ugari eta teknologia maila eskasa egon delarik.

50 eta 60 urteen artean, industria nagusitu zen garaian, orduantxe lekutu zen industria ugari gure udalerrian. Garai hartan, hazkuntza handia bizi izan zen, Bilbo eta Barakaldoko herrien hedakuntzaren ondorioz. Hala ere, hedakuntza honek atzera egin zuen hurrengo urteetan, hots, 70 eta 80 urteetan, izan ere, garai horretan, industriaren birmoldaketaren ondorioz krisialdi bat bizi izan zen eta, era berean, agerian geratu zen guztiz zaharkituta zegoen industria sarea.

Gertaera honekin batera, hirugarren sektorearen garapen eskasa zela kausa enpresa askok

jarduerari utzi egin behar izateaz gain bertan, lanean, ziharduten asko jaioterrira itzuli ziren, izan ere, langile hauek, aurreko garai batean, lan bila etorri eta herrian lekutu izanikoak ziren eta.

Azken urteetan jasan izandako krisialdiak biztanleriaren beherakada eragin du, honetaz gain, bestelako eragile batzuk direla medio, hala, jaiotze tasaren apaltzea, nola, bizi itxaropenaren luzatzea, areagotu egin da. Honek, halaber, lan egiteko sasoian dauden biztanle gazteen urritzea ez ezik, lan egiteko adina gaingitu duten gizabanakoen taldea handitu egin du, honek udalerriari inolako onura ekonomikorik ekartzen ez diolarik.

Azterketa sozio-ekonomikoan ikusi ahal izan dugunez, azken urteotan, langabezia tasa urrituz joan da Alonsotegiko herritarren artean. Hala ere, Bizkaiko Lurralde Historiko eta EAErekin alderatuz gero, azken hauek duten bataz bestekoaren gainetik dago.

Era berean, Udalerrian, industrigintzan diharduten langileen kopurua urritu egin da, sektore honetako langileen ehunekoa ere apalduz, hori gertatu den heinean, zerbitzuen sektorean ari direnena areagotuz joan da. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzekoa da hirugarren edo zerbitzuen sektorean diharduten langileen ehunekoa, Lurralde Historiko zein Bilbo Metropolitarrakoa baino apalagoa dela.

Testuinguru hau kontuan izanda, enpresa ekimen berriak erakartzea ahalbideratuko lituzkeen jarduera ildoak zehaztu beharko lirатеke.

Horretarako, enpresak ezartzeko, Alonsotegik zenbait ezaugarri erakargarri ditu bere alde, euren artean, Enkarterri eta Bilbo Metropolitarraren artean, hots, gune estrategiko batean kokatuta egotea, komunikabide egokiak, Bilbotik gertu egotea eta industrigintzarekiko tradizioa.

Bere kokapenari dagokionez, lehentxeago aipatu dugunez, Alonsotegiko Udalerrria, gune estrategiko batean datza, hots, Bilbo eta Enkarterrien erdian, hiriburutik eta Barakaldotik 8 km-ra, baino ez. Honek, enpresa berriak kokatzeko leku ezin hobea egiten du. Udalerrriaren inguruak eta bere kokapenak, beraz, enpresa berri eta lehiatsuak ezartzeko leku ezin hobea egiten dute. Aipatu enpresen garapen ekonomikoak hazkuntza jasagarria eragingo du, Alonsotegiko biztanleriaren bizi kalitateari eusten lagunduko diona.

Bestalde, hain industria gune garrantzitsuetatik gertu egoteak, Alonsotegik behar bezalako komunikabide egokiak izatera eramán du, era berean, ezaugarri honek, etorkizunari begira, hedabide berriak eskaintzen dizkio, hala, errepidetik, BI-636rekin, nola, FEVE izeneko tren erakundea zein Bizkaibus Autobus Konpainiaren bidez (Bilbo-Sudupe-Artziniega-Arespalditza).

Ezaugarri hauek berebiziko garrantzia dute, enpresa berriak erakarri, jaso eta ezartzerakoan, herriaren etorkizuneko garapenaren gakoa izango baitira.

Era berean, garapen hau bideragarria izan dadin lortzeko, ondoren aipatzen diren oinarritzko hiru zutabeok sustatu behar ditugu: gizakiak, erantsitako maila jasoá duten jarduera ekonomikoak eta udalerrriaren erakargarritasuna.

Gizakiak, ekonomia sistemaren oinarria dira eta, era berean, erantsitako maila jasoá, teknologia garapena eta ingurumenarekiko begirunea izango duten jarduera ekonomikoen zedarritzea eta berrikuntza ekartzea euren eskuetan dago.

Behar beharrezkoa da, halaber, erantsitako balio handiko ekoizpen zerbitzuetako industria berriak erakartzea, beraiekin, punta puntako teknologia behar duen dibertsifikatutako ekonomia lor dezagun, honek, herrian dauden industria ereduak garatzen utz ditzan eta osagarriak izateaz gain, herritarren aisia eta egoitza erabilerenganako begirunea erakuts dezaten.

Beraz, zerbitzu enpresen erakargarritasuna sustatzeán datza, hauek, bere aldetik, gaur egun dauden industrien kokapena sendo eta tinko dezaten. Enpresa ekimen berri horiek jasotzeán, beraien tipologia kontuan izan behar da, izan ere, behar den industria

garapenak begirunea zor dio
ingurumenari eta inondik inora ez
du eragin behar bere hiritarren bizi
kalitatearen galera.


Helburua hauxe da; Alonsotegi,
oinarri industrialaren gainean
eraikitako zerbitzu herria izatea.
Honek ez du esan nahi, sektore biak
(industrigintza eta zerbitzuak) ezin
direnik herrian elkar bizi,
alderantziz, sektore bi hauen
osagarritasunak, balio erantsi
handia duten jardueren
garapenerako oinarria izan behar
du. Ildo honetan, herrian dautzan
enpresen beharrei erantzun behar
zaie, batetik, euren nahia asebeteko
dituen jarduerak antolatuz, eta
bestetik, berrikuntza irizpideak eta
lehiakortasunerako zein gizarte
garapenerako oinarrizko ezagupena
duten gizabanakoei prestakuntza
emanez.

Halaber, garrantzizkoa da herriko
merkataritzaren berreskuratzea, ez
bakarrik diru etekinagatik eta
enplegua sortzen duelako,
Alonsotegiko kanpo itxura eta
erakargarritasuna indartzeko
oinarrizko osagaia baita.

Bestalde, herriko saltokien
lehiakortasuna hobetzeko eta
geurea den merkataritza sektorea
sendotzeko beharrak, bere egitura
ekoizlearen eguneratzea zein
arrazoitzea behar du, honek,
enplegua eta aberastasuna lortzen
lagun dezan. Bestalde, sektorearen
garapenak egokiak diren hirigintza
baldintza batzuk beharrezkoak ditu,
hala, kontsumitzaileari begira,
merkatal erakargarritasuna
areagotzen lagunduko dutenak,
nola, erosketa egintzan bertan
erraztasuna eta erosotasuna ere
ekarriko dituztenak.

Industria berrien kokapenari dagokionez, herriko industria zoruaren mugak izan behar ditugu kontuan, Alonsotegiren lurralde kokapena, gune menditsu batean eta Cadagua ibaiak zeharkatuta, oso berezia baita. Horretarako, industria garapenerako gune berriak, egoeragatik eta kokapenagatik egokiak diren tokietan ezartzea aztertu beharko litzateke, gauzak horrela, industria esparruak herri gunetik kanpora lekutuko lirateke, beti ere, loturak egokiak izan daitezen hurbiltasun nahikoaz.

Azken finean, balio handiz erantsitako produkzio zerbitzuak eta industria modernoak erakarri eta bertan eustea sustatu nahi dugu, horrela, batetik, udalerriaren garapen ekonomikoari neurri handi batean lagunduz eta bestetik, herritarren aisi eta egoitza erabileraren osagarria izango den ekonomia dibertsifikatua lortzen lagunduz.





5.2. LANDA TURISMOA, UDALERRIAREN IRUDI ERAKARGARRIA

Turismo eta merkataritza sektorearen garapena, eta beronek duen kulturaren erakargarritasunaren alderdiekiko lotura, oso helburu baikorra da Alonsotegiko Udalerriaren garapen ekonomikoarentzat.

Turismogintzaren etorkizunari heltzean, kontuan hartzen dugu jarduera honek aurrera begira duen hazkuntza gaitasuna eta aukera, Alonsotegiko jarduera ekonomikoaren tarte handiagoa lortze aldera., bai ekoizpena bai enpleguari dagokienez, herriaren ekonomia multzo osoan, lehen mailako tokia izanik, izan ere, hazkuntza aukerarik handien duen jarduera ekonomikoetako bat baita.

Hala eta guztiz ere, turismoaren irteera ez litzateke Alonsotegiko ekonomiaren konponbide bakartzat hartu behar, honen osagarri bat bezala baino, aberastasun eta enplegu iturri izateaz gain, eta beste sektore batzuen antolatzailea, zerbitzuena bereziki, izango dena.

Turismo sektore hau erdiesteko, lehenengo eta behin, gaitasun hauen guztien onarpena behar da eta, era berean, bere alde taldeko apustu egitea, ekonomia sustatzeko prozesu orok, gauzatu arteko bidean kostuak daramatzala onartuz.

Honetaz gain, ahalegina handia da benetan, horretarako produktu

berriak ekoitzi ez ezik, kudeaketa profesionalizatzea ere behar delarik. Azken batean, lehiakortasunaren gakoa ez datza prezioan soil soilik, kalitatean, profesionaltasunean, inguruaren zainketan, habitata eta eskaintza dibertsifikatuan baino.

Nolanahi ere, turismoaren tipologia aldatuz joan da azken urteotan, gero eta nabarmenagoa da, eskatzaile berriak, adituagoak, zorrotzagoak, independenteagoak, ekologikoagoak eta biziagoak direla, eta arrazoi anitz direla medio, urte osoan zehar bidaiatzeko prest egoten direnak.

Turismo egintzaren alderdi anitz eta ugarien egiaztatze honek eskuartzeko lan ildo berriak bilatzearen beharra mahaigaineratu du; zerbitzu zein ekipamendu, azpiegiturak eta baliabideen oinarripean kalitatezko eskaintza eta produktuak sortuz.

Gero eta aberatsagoak eta irekiagoak diren jardueren egitarauen pertsonalizazioa, batetik, eta ikusitako herrien kultura eta ingurumenaren balioenganako sentsibilizazioak, bestetik, turismo eskari berrien osagai erabakigarriak dira, turismo xede tokia, baliabideen erabilera argia egitera behartzen dutelarik.

Hau horrela izanik, udalerrian nekazal izaria duen turismoaren papera areagotu beharko litzateke. Horretarako, era horretako instalazio eta zerbitzuak sortu eta sendotu egin beharko lirateke,

berauek, herrialdearen garapen orekatua lortzea eta aberastasuna zein enpleguaren areagotzea erraztuko luketelarik. Azken finean, esperientzia lehiakorra eta kalitatezkoa eskainiko duen turismoa izan behar du landa turismo honek. Honekin batera, eskaintza, giza-baliabideen erakartzea eta, udalak dituen berezko baliabide naturalen ustiapena integratu ez ezik, ingurumenarekiko zainketa eta babesa une oro mantenduz ere.

Landa turismoak, gainera, uda sasoiari soilik loturik ez dauden bisitarien kopurua handitu egiten du. Hauek, orokorrean goi eta ertain mailakoak izaten dira eta udalerrian, gorantz doan garapen ekonomikoan, ekarpena izan dezakete. Sektore honen areagotzeak, urte osoan zehar burutuko den jardueraren ondorioa izan behar du.

Helburu hauek guztiak lortzeko bidean, herritarren artean turismo kontzientzia sustatu behar da. Udalerriko biztanleei ikusarazi egin behar zaie, garapen mota hau, natur baliabideen ustiapena eta hobekuntza biziagotzeko era bat dela.

Natur baliabideak, azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak, garraibideak, eta, batez ere, Alonsotegik daukan ingurumena, azken urteotan hain indarrean jarri den landa turismoaren eskaintza osatzera datoz.

Udalerriak, erakarpén ugari dauka, hala paisaia ederrak nola arte eta historia ondarea eta, baita bestelako kultur argudio batzuk ere. Azken hauek, gaur egungo aisia eta turismo mugimenduen gustukoak direnak, bertan, etorkizunean, hurbildu eta irabazteko helmugetariko bat osatuz.

Alonsotegirako, guztiz bideragarria litzatekeen aukera bat, mendi eta landa turismoa dugu. Hori lortze aldera, Alonsotegi, hainbat jarduera burutzeko helmugatzat sustatu beharko genuke, hala nola, ibilaldiak, bidezidorrak, ibilbideak, zaldi ibilaldiak, mendi-bizikleta..., jarduera hauek beste batzuen osagarriak izanik. Honetaz gain, Landa Oporretako Egoitzak sortu, honako ezaugarrietan oinarrituta; atsedena eta lasaitasuna, aire zabaleko kirol jarduerak, umeentzako egitarau bereziak, kultur egitarauak, etab. Izan ere, zilegi litzateke kirol jarduera, herriak duen natur eta historia ondarearekin elkarlotzea, euren artean; mendiko bidezidorrak, bidegorria kokatuko den antzinako trenbidea etab...; orain arte aipatutakoak, ariketa fisikoa eta natur zein kultura esparruek lotura zuzena dutela adierazten baitu.

Era berean, Alonsotegik dituen berdegune, mendi-baso eta natur aktiboen ustiapenari ekitea behar beharrezkoa da. Horretarako, gaur egun erabilgarri duen bidezidor sarea areagotu eta horixe berori erabili, bai barruti metropolitarretik bai kanpotik datozen bisitariei

aisialdirako xede lekutzat ezagutzera eman ahal izateko.

Bilbotik zein Enkarterritik gertu dagoenez gero, Alonsotegik oso inguru egokia dauka landa turismo etxeak kokatzeko. Hala, udalerria eta hiriburuaren arteko hurbiltasuna dela zein bere paisaiaren aberastasuna dela, bai bata bai bestea, herriaren sustapenean erabili beharreko osagaiak dira.

Turismo mota hau, oinarritzko eragile bat izan daiteke, herriaren kanpora begirako irudia landa-turismo helmugatzat sustatu eta hedatzeko, horrela, Alonsotegik, bere mugetatik kanpora ere ezagutze eta entzutea erdietsiko lituzke.

Udalerriak duen hedadura dela eta, natura-espazioa turismoari begira erabil daiteke bai aisia-aldirako bai atsedeen zein jolasleku bezala.

Aipatu den atal honen xedea, garapen sozio-ekonomikoa erraztea da, bere nekazal guneetan, batez ere, eta, era berean, natur espazioak berreskuratu eta antolatzea, aisialdirako eskarien areagotzeari erantzun, eta inguruan gainezka egoten diren beste natura-gune batzuk arindu. Honekin batera,

Lurraldearen iragazkortasunaren erraztea, hiri guneetako biztanleak natur guneetara helaraziz, Horrela, Bilbon eta Barakaldon, negozioetan zein kultur ekipamendu handietan oinarritzen den turismo eskaintzaren osagarria bilakatuz.

Hala ere, Alonsotegi beste arazo baten aurrean dago, ez baitauka kanpora ateratzeko irudi argi bat, izan ere, aurreko industria tradizioaren oinordekoa denez bere inguruaren irudi degradatua du. Behar beharrezkoa da, beraz, aurretik ezarritako irudi hori eraldatzea, udalerriaren inguruko benetako ezagutza eta potentziala eskainiz, bere natura baliabideak eta industrias gaindi izan ditzakeen erabilera gaitasunei etekin atereaz, horrela, Alonsotegik irudi erakargarri izaten laguntzeaz gain ekonomiari dagokionez merkataritza erakargarria duen landa turismo xede bilakatzen lagunduko dute.

Landa turismo hau Alonsotegi udalerri berezia bilaka lezakeen osagaia litzateke, identifikatu, bereizi eta bere kanporako irudiari oinarrizko aktiboa erantsiko liokeena.

Alonsotegi, beraz, bere garapen gaitasunaren irudi ezarekin egiten du topo aurrez aurre. Horregatik, behar-beharrezkoa da, Alonsotegirentzat eraikitzen den etorkizuneko irudikapenean bere natura aktiboak eta industria zein zerbitzuetarako potentziala eta azkenik, duen bizi kalitate maila jasoa, herriaren beraren isla izatea, bai herriko egoiliarrentzat bai bisitan zein bertan bizi izatera etor litezkeenentzat.

Bizi kalitatea			Kanporako irudia
Kokapen estratejikoak			Hazkuntza jasaangarria
Ingurumena			Aberastasuna
Kultura			Erakargarritasuna
Gizakiak			





5.3. GIZA BALIABIDEAK, FORMAZIOA ETA BALIABIDEAK

Gaur egun bizi garen moduko sistema global batean, garapena eta lehiakortasuna, ezinezkoak lirateke, jakituria, sormena eta berrikuntza kontuan hartu gabe, era berean, teknologia berriei, garapenari eta informazioari moldatzeko etengabeko prozesuari ere lotuta dago.

Udalerri batek etorkizunari aurre egiteko behar duen oinarriarik sendoa, bereak diren giza baliabideak dira. Hauek, udalerriari garapen jasagarria ekarriko dioten zerbitzu enpresa berriak erakartzeko faktoreak baitira. Giza baliabideak, etengabeko formazio sisteman gaitu behar ditugu, gizakien lanbide bizitza osoan zehar, horrela, teknologia eskari maila handia duen zein lehiakorra den gaur egungo merkatuari aurretiaz egokitzen joan ahal izateko

Formazioa garrantzi handikoa da garapen ekonomikoaren ikuspegi estrategikoari dagokionez, ez berez helburua delako, teknologia eta ekonomia maila zein indarra, inbertsio maila eta enpresa berrien ezarketa, bere biztanleria aktiboaren prestakuntza mailarekin estu-estu lotuta daudelako baizik.

Bestalde, ekoizpenari egokitzen ari zaizkion teknologia berriak, garrantzi handiko aldagetak eragiten ari dira langileen profiletan eta lanaren antolakuntzan, izan ere, moldatzeko

gaitasun handiagoa eskatzen die bai langileei bai enpresariei ere. Enpresak, langintza maila guztietan prest egon behar du eten gabeko prestakuntza aldaketa hauei guztiei egokitzeko.

Ildo honetan, ibileraren egituraren berrikuntza bat behar da, eta baita formazio ikastegien kudeaketa autonomia zein ikasgaien edukien areagotzea ere. Horrela, lan eta ikasketa munduaren arteko harremana sendotuz.

Formazioa, inguruarekiko giza erantzukizuna duen gizabanakoaren osotasunaren ezaugarri bat bezala hartu behar da. Ildo honetan, gizabanakoaren etika zentzua eta sentsibilitatea garatuko dituen formazioa hobetu behar da. Beraz, bazterkeriaren kontrako borrokarako zein gizabanakoen gizarteratzeko bitarteko eta tresna gisa erabili behar dugu.

Alonsotegin, hobe daitezkeen zenbait osagai ikus daitezke biztanleen formazio mailan, baita enpresen giza baliabideen politikan ere. Gauzak horrela, behar beharrezkoa da maila orokor batean gizabanako lehiakorrak eta prestakuntzadunak erdietsiko dituen hezkuntza sistema baten lorpena helburutzat izatea. Hau, kalitatezko Lanbide Heziketa bati lotuta, non, enpresek giza baliabideen kudeaketan eta formazioan inbertitutako duten, udalerriaren lehiakortasunari une oro laguntzeko.

Alonsotegik gaur egungo lan merkatuaren eskariei erantzuteko langile eskaintza egokia lortzeko gogor lan egin behar du, batetik, bere giza baliabideak industriaren krisialdiaren ostean bizi izan diren eraldaketei egokitu ez direlako, eta bestetik, garapen teknologikoaren bilakaera ezin azkarragoagatik.

Hezkuntza eta formazio sistemaren hobekuntza eta gaur egungo zein etorkizuneko enpresen beharretara egokitzea, ezinbestekoa da langileria lan merkatuan hobeto moldatzeko eta, horrenbestez, langabezia tasaren beherakada izateko

Era beran, beharrezkoa da hala, Unibertsitatea nola, Hezkuntza Ikastegi guztiek lan eskarietan bizi izaten ari garen aldaketak onar ditzaten eta euren hezkuntza eskaintza behar berri hauetara egoki dezaten. Hala eta guztiz ere, giza baliabide berezituen hornidurak ez du unibertsitateko prestakuntza egokia soilik eskatzen, honako hauek ere behar ditu; Lanbide Heziketa berritzailea eta gaur egungo enpresen beharretara ezagupenak moldatzen dakiena, hezkuntza eskaintza zabal bat, eta aldi berean, Alonsotegiko hezkuntza zentro eta enpresen arteko elkar lotura.

Halaber, udalerriko gazteak motibatzen eta pizten lortu behar da, eurak baitira bertako garapenaren oinarrizko zutabeak. Hala ere, talde honetan bada eskaintzen zaizkien ekimenen inguruan nolabaiteko interes eza,

parte hartze eskasa eta desmotibazio izugarria. Horregatik, behar beharrezkoa da gazte hauen motibazioa areagotuko duten egitasmoetan lan egitea, hezkuntza eta lan inguruetarako sarrera, euren egokitzea eta lan merkatutarako prestakuntza erraztuz eta, bide batez, begirunea, elkartasuna, ekimena eta laguntza balioak sustatuz. Balio hauek, udalerrian badira ere, nagusiengandik gazteenera igorri behar dira, horrela erkidego osora zabal eta ezar daitezten.

Balio hauek, udalerrian elkarrekiko bizitza harmonikoa lortzeko zutabeak dira, eta gizabanako oro, identifikatu eta bertako kidea senti dadin. Horretarako, sozio ekonomiko alor guztien laguntza behar da, honako hau ulertuz; biztanleriaren osotasuneko balioa, banakakoen batuketa baino are handiagoa dela.

Bestalde, Alonsotegiko Udalak, herritarren artean euskararen erabilerari eskaintzen dion arreta erakutsi du eta horretarako hainbat ekimen jarri du abian. Hala eta guztiz ere, ekin egin behar zaio lanari, euskara, herriko eguneroko bizimoduko esparru guztietan hizkuntza bizia izango bada.

Ahalegin honek, hala ere, bizilagun talde osoaren onespina izan behar du, euskara, komunikatzeko bidea eta euskal kultura zein gure ohituren euskarria eta zabaltzailea izan dadin, honako betekizun hauek izan behar ditu; batetik,

Alonsotegiko bizilagunen arteko
lotura izan behar du, Horrezaz gain,
identitate elementua eta talde
kontzientzia ere bai, eta azkenik,
neurririk hartu ezean denboraren
eraginez galtzeko zorian dauden
euskal balioak bermatu eta
tinkatzeko euskarria izan behar du.

Lortu behar dugun helburua,
Alonsotegi herri elebiduna izatea da,
horretarako, herriko ordezkari eta
eragileen arteko erabilera urria eta
ikasketaren arazoek sorturiko
oztopoak ezabatuz gero, udalerriko
eguneroko bizimoduan euskara
guztion ahotan egotea lortuko
genuke.

Hori dela eta, Udalak abian
jarritako ekimenez gain, eutsi egin
behar diogu honako helburuari,
alegia, euskararen erabilera
udalerri barruan hedatzeari,
orokortzeari eta jarduera berriak
garatzeari. Honekin guztiarekin,
euskararen erabilera udalerriko
egunerokotasuneko esparru
guztietara zabaltzea lortuz.





5.4. BIZI KALITATEA

Bizi kalitate mailaren areagotzeak, udalerriek beren hobekuntza oldartzeko, jardueran duten orientabide berri bat eratzen du, horretarako, herritarrengana hurbiltzea lortu nahi duen teknika sorta bat abian jarriko da, azken finean, bere ingurunean eroso eta egokituta senti daitezen.

Udalerri bateko herritarren bizi kalitatearen maila jasotzea eta bermatzeak aberastasuna eta hazkuntza jasangarria dakar berarekin, hala ere, behar beharrezkoa da, helburu hauek biztanle talde eta esparru guztiak elkartuz lortzea, inor baztertu gabe, eta, ez bakarrik, egungo biztanleria euste aldera baita profesional berezitu berriak erakartzeko osagai garrantzitsutzat ere.

Bizi kalitatearen hitzaren barruan, udalerriaren erakargarritasuna hartzen dugu kontuan, non, bi izariri erreparatu behar diegun. Batetik, izari fisikoa, non , ingurumenarekin loturik dauden ezaugarri guztiak dauden; hala nola, ingurua. paisaia ibaien zainketa eta berreskuratzearekin, etxebizitzak, ingurumen kutsadura eta zaraten kontrola, garraiobideen azpiegiturak etab... eta bestetik giza izaria, honek, hiritarren segurtasunaren esparruko ezaugarriak biltzen ditu, hala nola, inguruarekiko esker ona, osasuna, etab.

Lehenengo eta behin, izari fisikoari

dagokionez, ingurumenarekiko sentsibiltatea eta begirunea, bizi kalitatearen oinarritzko alderdia da, beraz, bere iraunaraztea, erkidegoaren helburu nagusietako bat izan beharko luke. Horretarako, herriko partaide guztiek, bai hiritarrek, bai enpresek lagundu behar dute helburu horren erdiestean, eta bereziki, Alonsotegi moduko herri batean, non, industria garapen garaian sortutako arazoak konpondu behar baitira.

Alonsotegiko berde gune, mendi eta natura aktiboen hornidura, kontuan hartzeko beste osagai bat da udalerriaren aberastasunak babesteko orduan, eta kanporako irudiaren osagai enblematikoa sortzeko ere, gainera, enplegu sortzailea izateaz gain, naturaren balioak zein ingurumen hezkuntzaren hedatzailea ere bada.

Bestalde, ingurumen alorrak enpresa eta lanpostu berriak sortzeko eskaintzen dituen aukerak hartu beharko genituzke kontuan, udalerriaren gizarte eta ekonomiaren biziberritzea erdiesteko, eta horrek ingurumenari ekarriko lizkiokeen onurak ahaztu gabe.

Etxebizitzarena, aldiz, Alonsotegiko arazorik larrienetarikoa bat da. Izan ere, udalerriko, etxebizitza parkea inguruko herrietakoa baino askoz zaharkituago dago, eta gainera, azken 25 urtetan eraikuntza guztiz geldirik egon izana du ezaugarritzat. Hori dela eta, eraikuntzen ehuneko handi batek,

kalitate ertain-baxukoak izateaz gain, berrikuntza behar handia dute.

Ez dago Alonsotegin eskaintza bereziturik, lurzorua eta etxebizitzaren politika berritzailearen beharra ikusi arren. Alokairuetarako eskaintza ere oso urria da eta ez dago zerga laguntzarik, beraz, komenigarria izango litzateke, Babes Publikoa duten etxebizitzaz hornitzea, gaur egun dagoen eskari mailari erantzuteko, horrela, bitarteko gutxi dutenentzat errazago bailitzateke lortzea, era berean, gazteei ere etxebizitza lortzeko bidea irekiko litzaieke.

Horretarako egoitzetarako lurzoru berriaren eskaintza zentzuz irekitzea komeniko litzateke, gaur egungo hirigintza sistemaren ondorioz sor litezkeen kudeaketa arazoak ekidite aldera.

Egoitzetarako lurzoruaren eskaintzak, era berean, auto aparkalekuen eskaintza osagarria izan beharko luke. Horrela gaur egun dagoen hutsunea ez ezik, motorizazio mailaren igoeragatik epe ertain eta epe luzera sor litezkeenak ere konpondu ahal izango lituzke.

Horregatik guztiagatik, etorkizunari begira, lurzoruaren erabileraren birplanteamendurako beharra mahaigaineratzen da. Horrela, udalerrian etxebizitza, aparkaleku eta aisialdirako gune eza dela eta azaleratzen diren

eskariei erantzungo litzaieke.

Halaber, bizi kalitatearen giza izariari erreparatuz, ezin dugu ahaztu kulturaren erantzukizuna udalerrriaren gizarte eta ekonomia eragile bezala. Herrian kultura jardueren eskaintzak, kanpoko bisitarien etorrera bideratuko du, kulturgintza ezberdinak, enpleguaren sorkuntza, eta era berean, kultur jardueran maila handia duten herriek duten giza eta ekonomia erakargarritasuna.

Kultura formazioa eta bizi kalitatearen hobekuntza elkarren ondoan doaz, horretarako, sektore ezberdin guztiek aurkeztutako beharrak kontuan hartu behar dira kultur plangintza anitza egiterakoan, hau, ikus-entzule ugariri begira egongo dena, hezkuntza sistemaren barruan kultur egitarauak izango dituen eta gainera, hezkuntza formazio artistikoa ere izango duela.

Kultura ekimenen eskaintza, udalerrriaren irudi erakargarriaren erreferentzia bezala lehiakortasun eta erakargarritasun handien sortzen duen eragilea da. Beharrezkoa da, beraz, Alonsotegi, bere herritarren bizi kalitatea areagotuko dituen kultura ekimen eta azpiegituraz hornitzea, gero hauek, kanpotarrak erakar ditzaten. Alonsotegiren irudia kanporantz indartu behar da eta bizi kalitate ona zein kultura garapen handia duen udalerrria erakutsi. Amaitzeko, herri bat erakargarria izan dadin eta berezitutako

profesionalen inbertsioak ere erakartzeko, bestelako arlo batzuk ere sendotu behar dira, hala nola, kohesioa eta giza integrazioa, elkartasuna sustatuz eta bitarteko gutxi duten talderik kaltetuenekin gizarteratzeko bideak ezarriz. Dena dela, bazterkeriarik gabeko gizarte baten lorpena, prebentzioan hasi behar du eta ez baztertutako bizilagunen integrazioarekin.

Bizi kalitatearen giza izariaren barruan nabarmendu behar dugun beste gai bat, hiri segurtasunari dagokiona da. Segurtasuna, jarduera oro garatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da, hala, enpresa jarduerak, nola, kultura arlokoak, eta beronen ezak udalerriaren hedakuntza eta garapena galarazi egiten du. Halaber, gizaki eta enpresen gizarteratze eta bermatzea oztopatzen du.





5.5. HIRI-EHUNAREN HEZURDURA ETA INTEGRAZIOA

Alonsotegi industria tradizioak landu duen udalerria da, horixe da bere ezaugarria, eta tradizio horren ondorioz 50 eta 60ko urteetan, industria kokapen izugarria izan zuen, teknologia maila eskasa zuen langile andana ekarri zuena.

Asentatze hauek zenbait biztanleria taldetan sortutako irabazien banatze heterogeneoa ekarri zuten, eta arazo hau 80ko hamarkadako krisialdian areagotu egin zen.

Antzinako ekoizpen eta egoitza jarduerak, lurraldea hartu dute unean uneko beharrak eraginda, egungo lurzoruaren erabilera eratuz. Honek, geroxeago aztertuko ditugun barne higikortasunari lotutako arazoekin batera, udalerriaren barne hezurduraren haustea eragin dute.

Udalerria hezurduraz hornitzeko beharrak, bere auzoen arteko lotura fisikoa, hau da, interkonexio fisikoa eskatzen du, izan ere, hauen artean urrutiegi ez badaude ere komunikazio arazo larriak dituzte. Komunikazio eza honen eragileak honako hauek dira; batetik, lurraldearen orografia bera, egoitzetarako zein jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez udalerriaren garapenean eragin handia izan duena, eta bestetik, udalerriko guneen artean dauden komunikazio eskasak.

Udalerriak dituen azpiegitura eta komunikabideen azterketari dagokionez, hau bi ikuspegi ezberdinetik egin daiteke, batetik, herriz kanporako komunikazioen ikuspegitik, eta bestetik, herri barrurako komunikazioa.

Kanporako ikuspuntutik, eta udalerrirako sarrera ahalbideratzen duten komunikazio sistemak aintzakotzat harturik, Alonsotegik, beste udalerri batzuen aldean, abantaila lehiagarriak ditu, hala nola, erakargarritasuna eta enpresa berrien erakartzea, izan ere, dituen azpiegitura anitzengatik eta garraiobideengatik.

Hala ere, herri barru mailan, barne higikortasuna deritzon barne-harremanei eusten dieten sistemak kontuan hartuta, komunikabideek ez dute emaitza onik eskaintzen, herriko auzoen arteko lotura fisikoak urriak diren heinean. Honek, udalerriko barrutien artean, irisgarritasun eta higikortasun arazo larriak sortzen dituela.

Gaur egun, herri barneko komunikazio sistema galtzada batean datza, herria erditik gurutzatzen duena eta ibilgailuz gainezka dagoena. Honek auzoz auzo ibiltzea errazten badu ere, ez du erosotasunez ibiltzen uzten, egunero bertatik igarotzen diren ibilgailuak, 20.000 egunero, alegia, eta ezpaloi ezak bertatik ibiltzea oztopatzen baitute. Beraz, hau guztia kontuan izanda, honako hau ondoriozta daiteke: oinezkoentzako lotura eskasa dagoela, Alonsotegin

dauden auzoen arteko higikortasuna asko zailtzen duena.

Kontuan izan behar dugu, oinezkoentzako bideak sortzeak udalerrri maitagarriago bat eratzen lagundu ez ezik, bere biztanleen bizi kalitatea igotzen laguntzen duela, gainera, soinu kutsadura mailaren murrizketa lortzen laguntzen du, izan ere, ez dugu ahaztu behar, soinu kutsadura bizi eta ingurumen kalitatearen desitxuratzailea dela.

Ildo honetan,esan beharra dago, egoera hau hobetze aldera, Udalak neurri batzuk hartu dituela dagoeneko, hala, antzinako trenbideetan bide gorri bat egitea, nola, Cadaguako korridorearen eraikuntza, Enkarterriko atea izango dena. Bide honekin, orografiak ezarri duen zailtasunez beteriko diseinua eta bertatik doazen ibilgailuen dentsitatearen arazoa arindu nahi da, horrela, udalerrriak gaur egun jasan behar duen trafiko-oldea saihestu ez ezik espaloien eraikuntza ere bideratuko luke, gaur egun auzoen artean dagoen oinezkoentzako higikortasuna erraztuz.

Barne komunikazio sistema hobetzeko beharra eragiten duen arrazoi nagusietako bat, gizarte kohesio handiagoa lortzearena da, izan ere, Alonsotegin dugun hezurdura fisikoaren apurketa, giza apurketaren arrazoi zuzena baita. Horregatik, lehentasun handiko gaia da udalerrria osatzen duten auzoen arteko lotura egokia

ziurtatuko duen barne higikortasun sistema garatzea. Horrela, aipatu apurketa hori ekiditeaz gain, giza kohesioa eta erkidegoaren partaidea izatearen harrotasuna indartuko lirateke.

Alonsotegin dagoen giza loturarik eza ez dator lehen aipatutako higikortasun arazoetatik bakarrik, lehen esan bezala, Alonsotegi industriari lotutako udalerrria izan da ohituraz, hori dela eta aurreko belaunaldiengandik jasoriko hirigintza egitura dauka. Hortaz, industria garapenak, hirigintza eta lurralde antolamendu eraginkorrik gabea izan dena, industria eta egoitza erabilerak elkarren gainjarrita egotea ekarri du.

Alonsotegi barruan, hasiera batean bi gune ondo nabarmenduak ikus daitezke, batetik, herri-gunearen eremu bat, egoitza izaria duena, eta bestetik, periferia, non lurzorua erabilerarik handiena industriarako dena. Honek eraikigarria den lurzorua gainezka egitea dakar eta gainera, ingurumenaren degradazio handia ere, inguruan bizi diren egoiliarren bizi kalitateari kalte handia eginez.

Alonsotegik aurre egin behar dion alderdi fisikoari zein gizartekoari dagozkion hezurdurarik ezak sortutako egoera honen aurrean, gizarte mailan eragingo duten tresnak abian jarri behar dira. Hauek, udalerriko auzo guztien birsorkuntza, hobetze eta gizarteratzeko balio izango dute.

Azken finean, kohesio handiagokoa, hezurduratuagoa izango den udalerria lortzea da helburua, horrela, hiritarren bizi kalitatea hobetuko litzateke, gizarte partaidetza, erantzukizuna eta tartean dauden identitate eta gizakien konpromiso aktiboa sustatuz.

		Higikortasuna		
Komunikabideak			partaide izatearen sentimendua	
Giza kohezioa				Elkartasuna
Lurzoruari erabilera definitzea				





Ondorioen laburpena

Hausnarketa estrategikoaren ondoren, honako hau ondoriozta daiteke: Alonsotegi, bere natura aktiboak erakargarri bihurtzearen alde egiten duen udalerria dela, bere garapen ekonomikoa landa turismo xedetzat indartuz, hiritarren bizi kalitatea hobetu eta bermatze aldera. Horretarako, dituen industria eta hirigintza jarduerekin bateratuko ditu aurrean esandakoak. Gainera, gazteen arteko formazioa, hala, balioetan, nola, ikasketetan sustatu nahi du, udalerriko etorkizunerako oinarri-oinarrizko baliabidea baita.

Helburu hau lortzekotan, Hausnarketa Estrategikoa sortzeko prozesuan zehar ezagutzera eman diren zenbait gako estrategiko azaldu dira. Horretarako, lehenik, udalerriaren inguru sozio-ekonomikoaren azterketa burutu da, eta honek, alde ahulak zein sendoak ezagutzeko aukera eman digu. Azterketa hau egiteko Alonsotegiko egunerokotasun sozio-ekonomikoaren erakunde ordezkari eta instituzioetako arduradunen laguntza izan dugu une oro.

Gakoen edukia adiera ematen hasi aurretik, ondo nabarmendu behar dugu, Alonsotegik, gizaki zein enpresak erakargarriak eta lehiakorak izaten lagunduko dien aktibo eta gaitasun erabakigarriak dituela. Hauek, ezinbesteko eragileak dira eta gako estrategikoak ezagutze prozesuan lagundu ez ezik etorkizun sozio-ekonomikoaren garapena baldintzatuko dute ere.

Hasteko, Alonsotegik kokapen estrategiko positiboa dauka, Bizkaiko Enkarterriko eskualdearen atea den heinean. Izan ere, Bilboko hiri gunetik 8 kilometrora datza eta horrek, komunikabide hobezez hornitu izana bideratu egin du. Halaber, enpresa eta zerbitzu berrien kokapenerako leku estrategiko erakargarriagoa bihurtu du eta honen bitartez, ekonomia garapen jasagarria eta udalerrri osasuntsu, seguru eta atsegina lortzea ahalbidetuko da.

Era berean, udalerria aktibo ugariz hornituta dago, hala nola, berde gune zabalak, paisaiak, ondare historiko eta artistikoa, etab. Herritarrei bizi kalitatea hobetzen laguntzen dieten aisialdirako guneak eskaini ez ezik gaur egungo aisialdi eta turismo joerekin bat egin dezaketen erakarpenak ere izan daitezke.

Eragile hauek aintzakotzat hartuz eta aurkeztutako etorkizuneko ikuspegia lortze aldera, honako gako estrategiko hauek adiera eman dira:

- Balio erantsia duten zerbitzu ekoizkorak eta industria modernoak herrira erakarri eta bertan eustea indartu, ekonomia dibertsifikatua lortze aldera, halaber, honek, garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna ekarriko lituzke eta hiritarren egoiliar zein aisialdirako erabilerak elkarren osagarri bihurtzea bideratuko luke.

Alonsotegik, horretarako, enpresak bertan kokatzeko zenbait eragile erakargarri ditu, euren artean hurrengo hauek daudela: bere kokapen estrategikoa Enkarterri eta Bilbo Metropolitarraren artean, komunikabide ezin hobeak eta industria tradizioa.

Zerbitzu enpresen atzipena sustatzea da helburua, bide batez, dagoeneko ezarrita dauden industriak bermatu eta indartuko direlakoan. Dena dela, ekimen berri hauen atzipenak berauen tipologia hartu behar du aintzakotzat, behar duen industria garapenak ingurumenarekin begirunea izan behar baitu, eta ez du inola ere hiritarren bizi kalitatearen galerarik ekarri behar.

- Udalerrian, landa turismoaren garrantzia areagotzea, garapen orekatua erraztuko duten zerbitzu turistikoak eta instalazioak sortuz eta bermatuz, halaber, enplegua eta udalerriko ekonomiaren hazkuntza ekarriko dituztenak.

Turismoaren sektorearen etorkizuneko garapenari honako ikuspegi honetatik heldu behar zaio: sektore honek hazkuntza gaitasun handia du, Alonsotegiko jarduera ekonomikoaren tarte handiagoa lortuz, hala, ekoizpen terminoetan, nola, enpleguetan, udalerriaren ekonomia osoaren egituraketan leku nagusia betetzen duela, izan ere, hazkuntza gaitasun handien ekar

dezakeen ekonomia sektoreetako bat da.

Kalitatezko turismoa sortu behar dugu, berde gune, mendi eta natura aktiboei etekin aterata, zerbitzuen hornitzea hobetuz eta gaitasun hau bai bisitariei bai Alonsotegiarrei udalerria aisialdi xedetzat ezagutzera emateko.

- Alonsotegik etorkizunari begira behar duen oinarria bere giza baliabideetan datza, hau, bere balio eta ezagupenen bitartez, udalerriari garapen jasangarria ekarri eta gainontzeko gako estrategikoak lortzen lagunduko dioten zerbitzu enpresa berriak erakartzeko eragilea da. Halaber, giza baliabideek etengabeko prestakuntza sistema batekin trebatu beharko lukete euren lan bizitza osoan zehar, horrela, aurretiaz moldatuko lirateke teknologia eskakizun maila handiko merkatu lehiakorrean. Azken finean, era orokorrean, lehiakorrak eta gaituak izango diren pertsonak lortzea bideratuko duen hezkuntza sistema lortzean datza.

Formazioa, garrantzi handiko gaia da ekonomia garapenaren alderdi estrategikoari dagokionez, eta ez bere baitan helburua delako, honako arrazoiengatik baino: batetik, teknologia eta ekonomia berrikuntzen intentsitate mailagatik, bestetik, inbertsio maila, eta azkenik, enpresa jarduera berrien instalazioengatik, izan ere,

biztanleria aktiboaren
prestakuntza mailari oso estu
lotzen baitzaizkio.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar,
erkidego osoaren aldetik esfortzu
handia behar dela euskara
komunikabide eta euskal
kulturaren zein gure ohituren
hedatzaile eta euslea izan dadin,
Alonsotegiarren artean lotura
gune, identifikatzeko bitartekoa
eta talde kontzientzia bihurtuz eta
euskal balio batzuk lortze aldera.

- Alonsotegik, udalerriko
biztanleen bizi kalitatearen
hobekuntzan jardun behar du
lanean. Honek inguru
atseginaren lorpena dakar
berarekin, inolako giza
bazterkeriarik gabe, aberastasuna
eta hazkuntza jasagarria
sortuko dituelarik.


Bizi kalitatearen kontzeptuaren
atzean bi izari hartu behar ditugu
kontuan, batetik, izari fisikoa,
ingurumena, paisaia, ibaien
zainketa eta berreskuratzea,
etxebizitza, ingurumen
kutsadura, hotsen kontrola,
garraio azpiegiturak, eta abarri
loturik dauden alor guztiak
batzen dituen, eta bestetik,
gizarte izaria, hiritarren
segurtasuna, inguruaren
atsegina, osasuna eta abarrez
arduratzen dena.

Gauzak horrela,
ingurumenarekiko begirunea eta
sentsibiltatea bizi kalitatearen
ardatza da, beraz, beronen

zaintzea erkidegoaren helburu
nagusia bilakatu beharko luke.
Era berean, etorkizunari begira
lurzoruaren erabileraren
birplanteamenduaren beharra
ikusten dugu, herrian dagoen
etxebizitza, aparkaleku eta aisialdi
gune ezari erantzute aldera.

Bestalde, bizi kalitatearen gizarte
izariari dagokionez, ez dugu
kulturaren zeregina udalerrian
gizarte eta ekonomia garapen
eragile gisa ahaztu behar. Kultura
prestakuntza eta bizi kalitatearen
hobekuntza elkarren ondoan doaz
eta oso estu loturik, gainera.
Kultura ekimenen eskaintza
udalerriaren irudi
erakargarriaren erreferentzia
gisa, erakargarritasun eta
lehiakortasun handien eragiten
duen faktorea da. Behar
beharrezkoa da, beraz,
Alonsotegik kultura ekimen eta
azpiegiturez hornitzea, hauek,
bertako biztanleen bizi kalitatea
areagotzeaz gain kanpotik
datozen bisitarien erakarle izan
daitezen.

- Azkenik, azken gako
estrategikoak udalerri barruko
komunikazio sistemen
hobekuntzaren beharra ezartzen
du, honen bitartez, gizarte
kohesio handiagoa lortuko
delakoan, herri barruan, udalerria
osatzen duten auzoen arteko
lotura egokiak ziurtatuko dituen
higikortasun sistema garatuz.
Honen ondorioz, herriaren
loturarik eza ekiditeaz gain,
kohesioa eta erkidegoaren




partaide izatearen harrotasuna indartuko lirateke.

Bestetik, gizarte jarduera mekanismoak jarri behar dira abian, hauek, udalerriko auzo guztiak lehenera ekarri, hobetu eta integratzeko bitartekoa izango direlarik.

Azken batean, udalerri lotuago, hezurduratuagoa lortzea da helburua, honek, udalerriko auzoen talde identitatea susta dezan, eta bestetik, hiritarren bizi kalitatea gizarte partaidetza, erantzukizuna eta partaide diren gizabanako eta identitateen konpromiso zuzena sustatuz ere hobe dezan.

Dokumentu honen ikuspegi zehatza eta gako estrategikoak jarduera iraunkor baten hasieratzat jo behar ditugu, hausnarketa honetan bildu diren hainbat gaitan sakonduko duen gerora begirako hausnarketa estrategiko berri batean gauzatu behako litzatekeen jarduera, hain zuzen, bide ezberdinen artean aukeratuko lukeena, eta bideragarriak diren proposamenak mahaigaineratuko dituen, eta azkenik, udalerrian egin daitezkeen jarduera eta politika guztiak hausnarketa honetan iradoki diren lan ildoen norabiderantz gidatuko dituen.





Parte hartu dutenen eranskina

Hausnarketa estrategiko hau burutu ahal izateko, Alonsotegiko herri bizitzako honako gizarte eta ekonomia eragileen konpromiso eta parte hartzea izan dugu.

- *José Antonio Altuna*
(Elizalde Pelota Taldea)
- *Eusebio Altuna Bilbao*
(Udaleko zinegotzia eta Jose Zabala Elkarteko ordezkaria)
- *Aintzane Arteagabeitia*
(EISEko koordinatzailea)
- *Janire Aurrecoechea*
(Egitasmoaren Udal Arduraduna)
- *Pedro Barrios*
(Elkartegia Poligonokoa)
- *Alfredo Bermejo*
(Arbuioko "Guridi" auzo elkarteko idazkari eta diruzaina)
- *Marian Bilbao Gardeazábal*
(Alonsotegiko Udaleko Kultura, Gazteria eta Euskara Zinegotzia)
- *Amaia Burgoa*
(Alonsotegiko Herri Eskola)
- *Begoña Castillo*
(Alonsotegiko Udaleko Hirigintza Arloa)
- *Esperanza de la Fuente*
(Aritzmendi Kultur Elkartea)
- *José Ignacio Escobal*
(Krupp Hoesch Indusa Mure S.M.)
- *Mitxel García del Castillo*
(C. D. Larramendi Elkarteko Lehendakari ordea)
- *Eduardo García Ruiz de Gordejuela*
(Alonsotegiko Udaleko Ogasun, Pertsonalgo Baso eta Abeltzaintza Zinegotzia)
- *Ildefonso Goicoechea*
(Elizalde Pelota Taldea Elkarteko Burua)
- *Pilar Gómez Martín*
(Alonsotegiko Udaleko Zinegotzia)
- *Jose Manuel Gómez Miguel*
(G.A. Goiko Mendi Elkartea)
- *Marta Guerrero*
(Alonsotegiko Udaleko Kultura Arloa)
- *Paco Hernández*
(Arbuioko "Guridi" Auzo Elkartearen bokala)
- *Asier Intxausti Arregi*
(Alonsotegiko Udaleko Zinegotzia)
- *Jesús Larrañaga*
(Bilboko Eskualdeko Zuzendari Gerentea-Alonsotegiko Anbulatorioa)
- *Isidro Pablo López*
(Alonsotegiko Jubilatuen Elkartea)
- *Karmelo Marón*
(San Bartolomeko Parrokoa)
- *Gabino Mtnez. de Arenaza Arrieta*
(Alonsotegiko Alkatea)

- *Karmelo Orue*
(Txirri-txirri Kultur Taldea
elkarteko Harremanak)
- *José Luis Pardo*
(Atofina España SA-ko Ingurumen
eta Segurtasun Teknikaria)
- *Yolanda Pérez Intxausti*
(Alonsotegiko Udaleko Ongizate
eta Sanitate Zinegotzia)
- *José Puch Amigo*
(Helduen Hezkuntza HHE)
- *Iratxe Regidor*
(Inguraldeko Herri Garapenerako
agentea)
- *Flori Rentería*
(Gure Hizkuntza Euskaltegiaren
Arduraduna)
- *Julia Riesgo*
(Alonsotegiko Udaleko Gizarte
Zerbitzuetako Oinarrizko
Unitatearen Gizarte Laguntzailea)
- *Javier Rodríguez*
(Inguraldeko Zuzendaria)
- *Luis Miguel Rodríguez Beraza*
(Alonsotegiko Udaleko Zinegotzia)
- *Inmaculada Rodríguez*
(Emakumearen Sustapenerako
Zentroa)
- *Fátima Sánchez*
(Gazteleku)
- *Iñaki Sánchez*
(Txirri-Txirri Kultur Taldea
Elkartearen Presidenteordea)
- *Aitor Santiesteban Aldama*
(Alonsotegiko Udaleko Hirigintza,
Herri Lan, Ingurumen eta
Zerbitzuetako Zinegotzia)
- *Julen Sierra*
(Argitasuna Kultur Taldea)
- *Luis Fernando Urkiola Mentxaka*
(Alonsotegiko Udaleko Hezkuntza,
Kirol, Enplegu eta Formazio
Zinegotzia)
- *Ignacio Urkiza*
(José Zabala Elkarteko Bokala)
- *Leire Usillos*
(Cadagua Poligonoaren
Administratzailea)
- *Juan José Ziarrusta*
(Azpiegitura S.A.
Zuzendari Nagusia)
- *Jose María Zubero*
(Udal Liburutegiaren Arduraduna)
- *Klemen Zuloaga Yanguas*
(Alosotegiko Udaleko Merkataritza
eta Kontsumo Zinegotzia)
- *C.D. Arbuio Elkarte*
- *Arbuioko Jubilatuen Elkarte*
- *Gurasoen elkarte*
- *Euskadiko Kontsumitzaileen
Elkarte*
- *Irasagarra Kultur Taldea*



